

**GORPUTZ HEZKUNTZAN IKASKUNTZA  
KOOPERATIBOA APLIKATUZ ELKARBIZITZA  
HOBETZEN**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Díez Antxustegi, Ana

**ZUZENDARIAK:** Goñi Palacios, Eider / Corres Medrano, Irune

**GRADUA:** Lehen Hezkuntza

***Ekaina, 2019***



## **Labuperna**

Gaur egungo gizarteak ez ditu kooperazioaren eta laguntzaren baloreak sustatzen eta hori dela eta, eskolak duen indarrak baliatu beharko litzateke. Modu horretan, ikerketa honek bi helburu nagusi ditu: Araia Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 4.mailako gela osatzen duten ikasleen kooperazio maila handitzea eta gelako giroa hobetzea. Horretarako, lehenengo, gaiaren inguruko bilaketa bibliografiko sakona egin da marko teoriko batean kokatuz. Ondoren, aztergai den ikasgela osatzen duten ikasleen harremanen diagnostikoa egin da behaketa eta soziograma baten bitartez. Jarraian, diagnostikoan lortutako datuak kontutan hartuta, egoera zehatzera egokituta diseinatu den esku-hartzea aurkezten da: Gorputz Hezkuntzako irakasgaiari 9 saioetan zehar jolas kooperatiboetan oinarrituta aurrera eramateko unitate didaktikoa. Eraitzen atalarekin bukatzeko, ebaluazioa egiteko erabili diren errubrika eta saio guztien laburpenen bidez lortutako datuek zehaztutako helburu guztiak lortu direla erakusten da. Azkenik, ikerketak emaitza positiboak lortu dituen arren, izandako mugak eta limitazioak eta horiek hobetzeko proposamenak aurkezten dira.

**Hitz Gakoak:** kooperazioa, gelako giroa, Gorputz Hezkuntza, jolas kooperatiboak.

## **Resumen**

El contexto actual de la sociedad no favorece los valores de cooperación y ayuda ni las actitudes altruistas y prosociales, es por lo que la escuela debe y puede potenciar un avance positivo en torno a ello. De este modo, los principales objetivos de esta investigación son los siguientes: aumentar el grado de cooperación de los alumnos que forman la clase de cuarto de primaria de la escuela de Araia y mejorar el clima de dicha clase. Para ello, en primer lugar, se ha hecho una búsqueda bibliográfica sobre el tema. Después, se ha llevado a cabo el diagnóstico de la clase utilizando como herramienta la observación y un sociograma. A continuación, con la información recogida, se ha creado una unidad didáctica adaptada a las necesidades de la clase, formada por 9 sesiones basada en juegos cooperativos para llevar a cabo en la asignatura de Educación Física. Para finalizar con los resultados, se puede observar mediante una rúbrica y los resúmenes que se han hecho en casa sesión que se han logrado todos los objetivos previamente concretados. Para terminar, aunque la intervención haya tenido resultados positivos, se presentan los límites y las propuestas de mejora de este trabajo.

**Palabras clave:** cooperación, clima escolar, Educación Física, juegos cooperativos.





## AURKIBIDEA

## ORRIALDEAK

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	1
2. MARKO TEORIKOA .....	3
3. HELBURUA.....	17
3.1. Diagnostikoaren helburuak .....	17
3.2. Diseinuaren helburuak .....	17
3.3. Esku-hartzearen helburuak .....	18
4. METODOA.....	18
4.1. Parte hartzaileak eta testuingurua .....	18
4.2. Tresnak .....	19
4.3. Prozedura .....	21
5. EMAITZAK.....	22
5.1. Diagnostikoaren emaitzak .....	22
5.2. Diseinuaren emaitzak .....	26
5.3. Esku-hartzearen emaitzak .....	29
6. ONDORIOAK .....	36
7. BILBIOGRAFIA .....	40
8. ERANSKINAK .....	44

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Irakasle izango naizen heinean, nire etorkizuneko lanbidea izango den horretan aurkitu ditzakedan erronkak eta horiek nola gainditu ditzakedan pentsatzen aritu naiz askotan.

Eskolako ikaskuntzaren eta gaitasun sozialen prozesuen garapenean gainditu beharreko arazoetako bat eskolako elkarbizitza desegokia da. Batzuetan, gure ingurukoekin atseginak izatea zaila egiten zaigu. Alboan ditugun kideak pertsona desberdinak dira, ohitura desberdinak dituzte, balore desberdinekin heziak, eta beste edozeinekin talka egitean gure intolerantzia agerian uzten dugu. Areriotasun horrekin erantzutea gure egoa iraintzen duen horren aurrean defenditzeko modua da.

Eskolako elkarbizitza prozesu hezitzailearen barne dauden kide desberdinen arteko harremanak dira. Harreman horrek ikaslearen garapen sozial, etiko, moral, afektibo eta hezitzailean dauka eragina. Hezkuntzaren psikologiako adituek diote ikaskuntza prozesua egokia izateko beharrezkoa dela gure gertukoekin, gelako ikaskideekin, harreman ona mantentzea.

Eskolako elkarbizitzako arazorik handiena faktore desberdinetatik sortzen da. Faktore horietako batzuk soilik Curriculumean jasota dauden edukiak lantzeaz arduratzen diren irakasleen ardura dira. Irakasle mota hauek ikasleei kideekin ahalik eta modu hoberenean elkarbizitzeko garrantziaren balioa transmititzea albo batera uzten dute.

Eskolako elkarbizitza egokia sortzeko bidean, gurasoek ere rol garrantzitsua hartzen dute. Gurasoek ez dakite euren seme-alabak ego osasuntsuarekin eta maitatzen jakiten hezitzen. Horren arrazoia beraiek ere "tranca" berdinekin hezi direlako da. Modu horretan, ez diete irakasten zein garrantzitsua den munduan aurkitu dezaketen aniztasuna onartzea.

Eskolako elkarbizitza gelako lau pareten artean gelakideen artean gertatzen diren egoerek eragiten dute. Askotan elkarbizitzan eman daitezkeen arazoen eragilea kideen arteko gehiegizko lehiakortasuna izaten da: hoberena izateko, nota hoberenak lortzeko... lehia, edo besterik gabe karpeta edo mugikor hoberena izatekoa. Hau da, besteak baino hobeagoak izateko etengabeko lehia. Baina etengabeko borra hori ez dute norberaren ahalmenak gainditu edo pertsona bezala hezteko helburuarekin egiten, baizik eta besteei hobeagoak direla erakusteko asmoarekin.

Gaur egun oso zaila da kide guztien artean lotura handia dagoen gela bat aurkitzea. Ia gela guztietan "taldetxoak" sortzen dira eta askotan taldeko kideak euren artean soilik

elkartzen dira, gainontzekoekin harremanik mantendu nahi gabe.

Honetaz ohartuta konturatzen gara balio askoren falta dugula; batez ere maitasunarena, aldi berean tolerantzia, batasuna eta elkartasuna barnebiltzen dituenak. Balore horietaz edo talde baten parte garela ohartzen gara soilik helburu komun bat lortzeko batera lan egiten behartzen gaituztenean. Askotan jarduera mota horiek izaten dira gure artean hain desberdinak ez garela eta denok talde bat osatu dezakegula erakusten dizkigutenak.

Hain zaila da gure albokoa onartzea, ulertzea denok desberdinak garela baina aldi berean eskubide, betebeharrak eta baldintzak berdinak ditugula? Gure arteko onarpen horrek pertsona bihurtzen gaitu.

Ikasle bakoitzaren ardura da elkarbizitza ahalik eta atsegina izatea; inork ez digu eskatzen denen lagunak izatea, baizik eta baloreak dituzten eta gainerakoak errespetatzen dituzten pertsonak bezala jokatzeko ikastea.

Aipatutako guzti horrekin, gaur egungo hezkuntzaren ikaskuntza garrantzitsuenetarikoa, ezagutzen transmisioa baino gehiago, elkarrekin bizitzen ikastea dela esan dezakegu. Noski, ikasgai guztietan ikasi daitekeen gauza dela, baina Gorputz Hezkuntzako ikasgaia zeregin berezia du arlo horretan. Ikasgai honetako saioetan ikasleak etengabeko harremanetan daude, eta harreman horietaz jabetzeko aukera handiagoa izateaz gain, elkarrekin bizitzen ikasteko aukera paregabea ematen digu.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Kultur aniztasunaren erronka

Autore batzuek, teknologikoki garatuak dauden gizarteetan hezkuntza sistemak dituen bi erronka nagusi identifikatzen dituzte. Alde batetik, eskola arrakasta osoa, ikasle bakoitzaren gaitasunen garapen osoa lortzea dakarrena. Eta bestetik, ikasleei gizartean bizitzeko beharrezkoak dituzten baliabideak eskaintzea (Núñez, Solano, González eta Rosario, 2006).

Bigarren horretan murgilduz, esan dezakegu gaur egungo gizarteko testuinguruak ez duela ez kooperazioaren eta laguntzaren balioen, ez jarrera altruista eta prosozialen alde egiten. Gizarteak, gizabanakoak geroz eta helburu garaiagoak lortzeko, berdinekin lehiatzera bultzatzen ditu eta eredu bera da eskolako giroan presente daukaguna: lehiakortasuna sustatzen da bai gurasoen aldetik, eskola-arrakasta espero dutenean; bai eskola beraren aldetik ere, non denboraren zati gehiena modu indibidualean lan egiten den. Hori dela eta, eskolak, alor horretan aurrerapenak egiteko beharra eta gaitasuna duela sinistu behar dugu (Fernandez eta Méndez, 2006).

Gaur egun ez da bakarrik oinarrizko ezagutzak bereganatzea helburu duen hezkuntza bilatzen (Velázquez, 2013). Hezkuntzak bizitzarako prestatu beharko lukeelaren sinesmena dago (Fernandez eta Méndez, 2006) eta horretarako, irakaslean eta ikaskuntza memoristikoa oinarritutako irakaskuntzaz gain (Velázquez, 2013), kooperazioa, gatazkak, negoziazioa eta arazoaren konponketak ere integratu behar dira (Fernandez eta Méndez, 2006).

Kulturaniztun testuinguru batean beharrezkoa litzateke elkartasun hezkuntza, kooperazioa eta ikasleen arteko lankidetzaren inguruan aritzea. Hori lortzen bada, ikasleek, eskubidedun hiritar bezala, komunitatean jarrera horiek garatzeko aukera izango dute (Fernandez eta Méndez, 2006). Balore horiek lantzeko metodologiarik eraginkor eta aberatsena **ikaskuntza kooperatiboa** da (Velázquez, 2013).

Hezkuntza sistemak, beraz, sozializatorako faktoreen sortzaile bezala, curriculumean harreman sozialerako gaitasunaren ikaskuntzaz gain, gizabanako guztiek modu eraginkorrean kooperatzen ikasteko, eskola eta bere ikasgelak modu kooperatiboan antolatu beharko lituzke (Fernandez eta Méndez, 2006).

Lan horretan kontutan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat, gaur egungo hezkuntza testuinguruan aurkitu dezakegun aniztasun eta heterogeneitatea da. Egungo

eskolek gaitasun-linguistiko eta adimen (emozional eta motor) desberdinetako ikasleak jasotzen dituzte. Horietaz gain, ezgaitasunak dituzten ikasleak, gutxiengo etniko edo kulturalak, familia desegituratuak dituzten ikasleak... jasotzen dituzte ere. Aniztasunaren erronkari aurre egiteak eskola inklusiboaren ereduaren alde egitera bultzatzen gaitu. Eredu hori ikasle guztiek, euren arteko desberdintasunak eta zailtasunak alde batera utziz, batera ikasi behar dutelaren ideian oinarritzen da (UNESCO, 1995).

Hala ere, ikasle ezberdinak gela berdinean sartzek ez du arrakasta akademiko eta soziala bermatzen. Are gehiago, diskriminazio eta euren arteko desberdintasunak aregatu daitezke (Cohen, 1999; Putnam, 1997). Hori ekiditzeko eta helburu komunak lortzeko ikasle guztien elkarrekintza eskatzen dituzten ikaskuntza metodo aktiboak sustatzea garrantzitsua da (Velázquez, 2013). Beraz, aniztasuna eta kulturartekotasuna, eta ikasleek dituzten behar heterogeneoetara erantzuten duen eskola nahi baldin badugu, ikaskuntza kooperatiboko egiturak txertatu beharko ditugu. Izan ere, kooperazioa da ikasleen desberdintasun horiek murrizten lagunduko duen harremana (Fernandez eta Méndez, 2006).

Ikaskuntza kooperatiboarekin ikasleek gainerakoak laguntzen, taldean modu autonomoan lan egiten, trebetasun sozialak garatzen eta gatazketan autorregulatzen ikasten dute. Honek, nahitaez, taldeko kideen arteko lotura estua eragiten du ondorengoa sortuz: harremanen hobekuntza, gainerakoen onarpena, berdinen arteko konfidantza, aurreiritzien desagertzea eta egokitzapen soziala. Gainera, guztien integrazioa errazten du, ikasleek jarrera positiboagoak erakusten dituzte, motibazioa handitzen da eta elkarrengandik ikasten dute (Guinea, 2017). Beste modu batean esanda, ikaskuntza kooperatiboak elkarbizitza eta eskola giroa hobetzen laguntzen du.

## **2.2. Eskola Giroa**

Eskola giroaren esanahia urteekin progresiboki eboluzionatzen joan da; asko eta oso ezberdinak izan dira emandako definizioak (Cohen, McCabe, Michelli, eta Pickeral, 2009; López-González eta Oriol, 2016; Thapa, Cohen, Guffey eta Higgins-D'Alessandro, 2013).

Autore batzuek "ikusuntu objektibo" batetik ikastetxearen alderdi fisikoetara soilik mugatzen dute definizioa (U. S. Department of Health and Human Services, 2000). Beste batzuek, berriz, eskola giroaren "izaera subjektiboa" azpimarratzen dute definizioan ikastetxeko gizabanako bakoitzaren garrantzia nabarmenduz (Sandoval-Caraveo, Surdez-Pérez eta Pérez-Sandoval, 2017).

Sortu diren definizio ezberdinetatik abiatuz, Cohen et al. (2009) harreman

interpertsonalen garrantzia onartuz baino segurtasuna nabarmenduz, eskola giroa ikastetxeko kalitatea eta izaera bezala definitzen dute; araez, helburuz, baloreez, ohitura orokorrez, harreman interpertsonalez, irakaskuntza eta ikaskuntza praktikaz eta ikasleak sozial, emozional eta fisikoki seguru sentitzen laguntzen duten antolakuntza egituraz eta prozesuz osatua.

Hala ere, nahiz eta asko eta oso desberdinak izan ebaluatutako domeinuak, ikertzaileen artean ia adostasun osoa dago badaudela lau domeinu eskola giroa eratzen dutenak: segurtasuna, harremanak, kanpoko giroa eta ikaskuntza-irakaskuntza (Cohen, 2006; Cohen, et al., 2009; Freiberg, 1999; National School Climate Center, 2014). Jarraian domeinu bakoitza deskribatzen da:

*Segurtasuna.* Dimentsio honek ikasleak ikastetxean fisikoki zein sozioemozionalki seguru sentitzean, arauak argi komunikatzean eta arazoek konponketan hezitzean oinarritzen da (National School Climate Center, 2014).

*Kanpoko giroa.* Domeinu honek ingurune fisikoko alderdi desberdinak barnebiltzen ditu: ikasgelen eta inguruko garbitasuna, espazioa eta material egokia, edo curriculum edo curriculumetik kanpoko eskaintza erakargarriak (Cohen, et al., 2009; National School Climate Center, 2014).

*Ikaskuntza eta irakaskuntza.* Autore ezberdinek baieztatzen dute eskola giro positibo batek ikaslearen ikasteko gaitasuna zein irakaslearen irakasteko gaitasuna sustatzen duela (Finnan, Schnepel eta Anderson, 2003; Ghaith, 2003; Kerr, Ireland, Lopes, Craig eta Cleaver, 2004).

*Harremanak.* Ikastetxeko ikaslearen artean eratzen diren harremanak eskola giroaren ezinbesteko eremuak dira. Harremanen aspektu garrantzitsuenetariko bat konektatuta dauden pertsonak nola sentitzen diren da (Thapa, et al., 2013). Domeinu honek aniztasunari, adinari eta konektagarritasunari errespetua, komunitate eta lankidetzaren zentzua, elkarrekiko laguntza eta komunikazio jarraia bezalako aspektuak barnebiltzen ditu (Cohen, et al., 2009; Gregory eta Cornell, 2009).

Berdinen arteko harreman positiboek parte-hartzea eta ikaskuntzarekiko interesa suspertu, ongizate psikologikoa hobetu eta arrakasta akademikoa indartzen dute (Gregory eta Cornell, 2009; Jia et al., 2009; Wang, Selman, Dishion eta Stormshack, 2010; Wentzel eta Watkins, 2002).

Lan honen interesa laugarren aldagai honekin lotura zuzena dauka

### **2.3. Ikaskuntza kooperatiboa**

Ikaskuntza kooperatiboa talde txikietan egindako lanean oinarritzen den ikaskuntza metodologia hezitzaile bat da. Talde horiek heterogeneoak izaten dira eta ikasleek batera lan egiten dute bai beren ikaskuntza zein kideena hobetzeko (Velázquez, 2007; Velázquez, Fraile eta López, 2014).

Gaur egun, ikaskuntza kooperatiboa irakaskuntza-ikaskuntza estrategia garrantzitsu bezala hartzen da, ikasleen maila akademikoan, sozialean eta afektibo-motibatzailean lorpenak eragiten dituelarik (Velázquez, Fraile eta López, 2014). Ebidentzia enpirikoak ziurtatzen du ikaskuntza kooperatiboa gainerako metodologia indibidualistak edo lehiakorrak baino eraginkorragoa dela (Velázquez, 2007).

Taldean lan egitea proposatzen da gizabanako bakoitzak bere eta gainontzekoen ikaskuntza hobetzeko. Eredu honetan, beraz, bi helburu daude: aurreikusten diren egitekoaren helburuak ikastea eta taldekide guztiek ere lortzen dutela ziurtatzea. Eredu lehiakorrean, helburua gainerakoak baino hobea izatea edo emaitza hobeak lortzea da; indibidualistan, gainerakoek egiten dutenetik at, bakoitzak lortu dezakeen helburu hoberena lortzea da; eta eredu kooperatiboan, berriz, norberaren arrakasta taldeko arrakastaren bitartez lortzea da.

Lan kooperatiboa egoteko helburu komun bat egotea beharrezkoa da. Talde kooperatibo batek banakako arduraren zentzua dauka. Horrek esan nahi du kide guztiak direla norberaren eta gainontzekoen lanaren partaide eta horretan inplikitzen direla, bakoitzaren lana arrakastarako ezinbestekoa dela ulertuz (Eusko Jaurlaritza, 2007).

Hezkuntza formalean benetako helburua ikasle guztien integrazioa baldin bada, eskolako lana lan kooperatiboaren planteamenduan oinarritu beharko litzateke (Coelho, 1998). Lan kooperatiboan, gainera, taldekide guztiek helburu berdina izateak partekatutako nortasuna garatzen laguntzen du; horrez gain, etengabeko kontaktuak ikasleak kideekin modu ez estereotipatu batean harremantzea dakar.

Kooperazioa elkartasuna da, baina ez elkartasun hertsagarria, baizik eta elkartasun irekia, bihotzezkoa eta iraunkorra.

Lan kooperatiboak ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren arduraduna eta protagonista izatean jartzen du enfasia. Modu horretan ulertzen da ardura hartzen dutenek ikasi egiten dutela eta pertsonak komunitatean eta etengabeko interakzioan ikasten dutela. Garrantzitsua da, beraz, ikaskuntza hori ahalik eta aberatsena eta eraginkorra izatea ahalbidetzen duten baliabideak ematea. Hori mota guztietako taldekatzeak sortuz eta interakzio desberdinen alde eginez lortzen da. Aldi berean, lan kooperatiboa, parte-hartzen duten gainerako kideak sakonago ezagutzeko bidea da (Eusko Jaurlaritzak, 2007).

### *2.3.1. Osagarriak*

Ikasleen arteko harremana egoteak edo euren artean koordinatzeak ez du esan nahi, norberak bakarrik egin dezakeena baino hobeto egingo dutenik (Fernandez eta Méndez, 2006). Hau da, ikaskuntza kooperatiboko egoera bat ziurtatzeko ez da nahikoa taldeak egin eta helburu zehatz bat lortzeko batera lan egin behar dutela esatearekin.

Autore desberdinek egoera horrekin sortu edo agertu daitezkeen ondorio edo jokaera kaltegarriak aztertu dituzte (Velázquez, 2007). Talde laneko jardueretan ematen diren jokaera negatiboak saihesteko bitartekari baldintzen presentzia beharrezkoa da (Johnson eta Johnson, 1994) eta ikaskuntza kooperatiborako ezinbestekoak diren osagarriak eratzen dituzte:

1. Interdependentzia positiboa. Ikasleek ulertzen dute egiten duten lana eurentzako baliagarria izateaz gain, kideentzat ere onuragarria dela. Horrek taldekide guztiek ahaleginak egitea, baliabideak partekatzea eta arrakasta denon artean ospatzea dakar.
2. Interakzio eragilea. Zehaztutako ataza betetzeko, taldeko kide bakoitza gainerakoak animatu eta egiten dituzten ahaleginetan lagundu egiten ditu.
3. Ardura pertsonala edo banakako ardura. Ikasle bakoitzak ulertzen du bere zeregina taldearentzako garrantzitsua dela eta inor ez dela babesten gainerakoen lanean.
4. Gaitasun interpertsonalak eta taldeko gaitasunak. Talde lan konplexuekin hasi baino lehen, beharrezkoa izango litzateke ikasle bakoitzak bere kideak ezagutzea, onartzea, haiengan konfidantza izatea eta edozertan laguntzea; ondo komunikatzeko gaitasuna izatea eta osatutako taldeek sortu daitezkeen gatazkak era konstruktiboan konpontzen jakitea.
5. Taldekako prozesatzea edo autoebaluazioa. Taldea gai da hausnartzeko egindako ekintzen artean zeintzuk izan diren erabilgarriak eta zeintzuk ez, eta ondorioz, zein jokaera mantendu eta zein aldatu behar duten inguruan erabakiak hartzea



## **2.4. Ikaskuntza kooperatiboa Gorputz Hezkuntzan**

Ikaskuntza kooperatiboa ezagutzaren edozein arlotan ezarri daitekeen metodologia da. Nahiz eta orain arte egindako ikerketa gehienak nagusiki ikasgai kontzeptualetan oinarritu diren, azkenengo hamarkadan hainbat lan egin dira ikaskuntza kooperatiboa Gorputz Hezkuntzan, tradizioz lehiakorra izan den arloa inplementatzeko (Velázquez, 2007).

Esan daiteke, gaur egun, inklusioa XXI. mendeko Hezketa Fisikoko irakasleetako erronkarik handienetariko bat izaten jarraitzen duela. Inklusioaren erronka hori gainditzeko estrategia pedagogikorik baliagarriena ikaskuntza kooperatiboa da. Izan ere, ikerketa batzuk kooperazioak ikasleen garapen integralean laguntzen duela egiaztatu dute (Llavega, Planas, Ruiz eta 2014).

### *2.4.1. Onurak*

Alde horretatik, nabarmendu behar da ikaskuntza kooperatiboa Gorputz Hezkuntzan oraindik metodologia oso berritzailea dela. Izan ere, aurretik aipatu moduan, egin diren ikerketa gehienak 90-eko hamarkadan eta XXI. mendeko lehenengo urteetakoak dira. Hala ere, ebidentzia enpirikoak tradizioz lan indibidualean eta lehiakorrean oinarritutako metodologietan ikaskuntza kooperatiboak izan dezakeen abantailak erakusten ditu. Ondoren, lan enpiriko horiek aurkeztuko dira.

Steve Gineski (1993) iparramerikarrak helburu indibidualak, lehiakorrak eta kooperatiboak dituzten egiturek bigarren eta hirugarren mailako ikasleetan nolako eragina zuten aztertzeko ikerketa bat egin zuen. Ikerketak ondorioztatu zuen talde kooperatiboetan aritu ziren ikasleek gainerakoek baino egoera fisiko hobea eta elkarrekintza sozial positibo maila altuagoa izatea lortu zutela.

Gineskik, Heziketa Fisikoko programa batean (1996), erakutsi zuen jarduera kooperatiboak jarrera arazoak eta nahasmen emozionalak zituzten 8-12 urte bitarteko umeen interakzio sozial positiboentzako lagunak zirela.

Hildo berean, Steve Dunn eta Rolayne Wilson-ek (1991) Heziketa Fisikoko arloan ikaskuntza kooperatiboko estrategiak areagotzeko beharra azpimarratazen dute. Honen arrazoa, estrategia mota horiekin ikasleen errendimendua, harreman sozialen hobekuntza, ikasgelaren kontrol handiagoa izatea eta ikasleen gaitasun komunikatiboaren hobekuntza ahalbidetzen delako da.

Premisa hauekin ados, Donald Glover eta Daniel Miruda-k (1992,1995) erronka fisiko kooperatiboetan oinarritutako Gorputz Hezkuntzako programa garatu eta ebaluatu zuten. Ateratako ondorioen artean, erronka moduan planteatutako proposamen kooperatiboek ikasleak talde lanean aritzeko duen gaitasuna eta harreman sozialak hobetzen dituela nabarmentzen dira. Horrez gain, ikasle guztiek arrakasta esperientziak izatea ahalbidetzen du, bakoitzaren autoestimua hobekuntzan laguntzen duelarik.

Sandra Gibbons eta Kathie Black-ek (1997) zazpi hilabete bitartean programa honen eraginkortasuna aztertu zuten eta ikaslearen autoestimua, onarpen soziala, konpetentzia atletikoa eta jarrera hobetzen laguntzen zuela adierazi zuten.

Espanian, Javier Fernández Río-k (2003), egindako ikerketan, ondorioztatu zuen ikaskuntza kooperatiboaren abantailek lotura zuzena zutela autokontzentzua, gaitasun fisikoaren eta itxura fisikoaren balioespenarekin eta gainerako ikaskideekiko eta gurasoekiko harremanen hobekuntzarekin .

Horrez gain, lan honetan ikusi zen ikaskuntza kooperatiboa, ikaslearen ikuspuntutik, Heziketa Fisikoa balioespen handiagoa izateko lagungarria dela, ikasleen arduraren pertsonala eta proposatzen diren jardueretako parte hartzea sustatuz. Zentzu horretan, ikaskuntza kooperatiboak ikasleak Heziketa Fisikoko arloaren balorazioa bertan hartzen duen arduraren arabera izatea dakar. Metodologia tradizionalan, aldiz, ikasleek arloko balorazioa kiroletan ona izatearekin edo egoera fisiko onean egotearekin erlazionatzen dute.

Carlos Velázquez eta M<sup>a</sup> Inmaculada Fernández-ek (2002) bakea sustatzeko, garaiari hirugarren zikloa zen horretara (5. eta 6.maila) bideratutako eta jardura ez lehiakorretan oinarritzen zen Gorputz Hezkuntzako programa bat sortu, aplikatu eta ebaluatu zuten. Emaitzak aztertuta, programa tradizionalarekin alderatuta, errendimendu motorreko mailari zegokionez, ez ziren desberdintasunak ikusi. Aitzitik, programa ez lehiakorretan parte hartu zuten ikasleen artean jarrera aldetiko hobekuntza adierazgarria nabarmendu zen, ikasleen jarrera kooperatiboak (gainerakoei laguntzea, talde lanean aritzea, gatazken kopurua murriztea, modu autonomoan jardutea...) areagotuz.

Carolina Valencia (2002) irakasle txiletarrak asmatikoak ziren ikasleei bideratutako ikerketa aurrera eraman zuen. Ikerketa horretan, jolas kooperatiboetan oinarrituta zegoen programa aplikatu zuen Heziketa Fisikoko klaseetan bi hilabeteetan zehar, astean bi orduetan. 6-9 urte bitarteko ikasleko 35 ikasleekin egin zuen ikerketa, eta bere helburua jolas kooperatiboekin ikasle asmatikoen integrazioa eta arnasteko zuten gaitasuna hobetzen zuten aztertzea izan zen. Ondorioen artean, ikertzaileak nabarmentzen du jolas

kooperatiboek ikasle asmatikoen integratiorako baliabide nabarmenak direla. Arnasteko gaitasunean, ordea, ez zituen aldaketa nabarmenak ikus; ziur aski, arnasteko gaitasunean aurrerapenak egoteko, programa lau hilabetera luzatu eta astean hiru saio eman beharko liratekeela.

Terry Orlick (1990) kanadar-ak eta bere lankideek egindako lanek jolas kooperatiboetan oinarritzen diren programek sustatzen dituzten abantailak ere aztertzen dituzte. Abantaila horien artean, dibertsioa, harreman interpersonal positiboen sustapena, parte hartzearen sustapena (urritasuna duen ikaslegoarena ere) eta enpatiaren eta gaitasun eta trebetasunen sustapena nabarmendu zituzten. Adin desberdinetako ikasleekin jolas kooperatiboaren programa hura aurrera eraman ondoren, aztertu zuten neska guztiek eta mutilen bi herenak jolas lehiakorrak baino, jolas kooperatiboak nahiago zituztela.

Laburbilduz, aipatutako ikerketa desberdinek, testuinguru eta herrialde desberdinetan gauzatuak, agerian jartzen dute metodologia kooperatiboaren nagusitasuna Heziketa Fisikoko saioak kalitate hobegokoak izateko (1.taula). Kalitatezko Gorputz Hezkuntza hori, ikasle guztiek, bakoitzaren ezaugarri pertsonalak alde batera utzita, beren gaitasunak eta trebetasun motorrak, egoera fisikoa... ahalik eta gehien garatzea ahalbidetzen duena izango da. Guzti hori gelako klima positiboa sortzen duen eta sozializazio prozesuan laguntzen duen harreman interpersonalean eta taldeko komunikazioan oinarritutako marko inklusibo batean eman behar da (Velázquez, 2007).

### 1.taula.

Ikaskuntza kooperatiboaren onurak

Ikerketen egileak	Onurak
Steve Gineski (1993)	-Egoera fisiko hobea -Elkarrekintza sozial positibo maila altuagoa
Steve Dunn eta Rolayne Wilson (1991)	-Ikasleen errendimendua hobetu -Harreman sozialak hobetu -Ikasgelaren kontrola -Gaitasun komunikatiboa hobetu
Donald Glover eta Daniel Miruda (1992,1995)	-Talde lanean aritzeko gaitasuna hobetu -Harreman sozialak hobetu -Arrakasta sentimendua – autoestimua igo
Sandra Gibbons eta Kathie Black (1997)	-Ikaslearen autoestimua -Onarpen soziala -Konpetentzia atletikoa -Jarrera

Javier Fernández Río-k (2003)	-Autokontzeptua -Ardura pertsonala -Parte hatzea -Ikaskideekiko eta gurasoekiko harremanak
Carlos Velázquez eta M <sup>a</sup> Inmaculada Fernández (2002)	-Laguntzeko gaitasuna -Talde lanean aritzeko gaitasuna -Gatazka kopurua murriztea -Modu autonomoan jardutea
Carolina Valencia (2002)	-Asma duten ikasleen integrazioa
Terry Orlick (1990)	-Dibertsioa -Harreman interpertsonal positiboan sustapena -Parte hartzearen sustapena (urritasuna duen ikaslegoarena ere) -Enpatiaren eta gaitasun eta trebetasunen sustapena

#### 2.4.2. Irakaslearen rola

Metodologia kooperatiboan ikasleak ardura nagusia baduela dirudien arren, irakasleak badu zeregiteko garrantzitsua, hurrengo puntuen ildotik:

1. Lan kooperatiboarekin zein irakaskuntza-ikaskuntza helburu bilatzen diren zehaztu. Honek inplikatzeko du, gutxienez lehenengo saioan, gaia azaltzeko, hastapenerako jarduerak batzuk aurrera eraman behar izatea. Ikaskuntza helburuak lortzeko aspektu garrantzitsua irakasleak, hasierako saio hauetan, ikasleen aurre ideiak zeintzuk diren ezagutzea izango da.

2. Material eta aholku aproposak eskaini lana aurrera egiteko.

3. Ikasleen arteko interakzioak aztertu. Behaketa horren helburua elkarlanean aritzean sortzen diren arazoak ezagutzea, taldekideen artean sortzen diren elkarriketak egokiak diren egiaztatu eta kideek aipatzen dituzten ideiak onartzen dituzten aztertzea da. Baldintza horiek ez badira betetzen irakasleak esku hartu beharko du aholkuak emanez.

Irakasleak koprotagonista izaten jarraitu behar du, beraz, ezin dio planifikatzeari, inplementatzeari eta ebaluatzeari utzi. Irakaslearen papera bitartekariarena, animatzailearena, gidariarena eta katalizatzailearena da. Heldu elkarriketatzailerak izan behar du, umearantzako konfiantzazkoa, pazientea, izaera ez autoritarioa eta afektiboa duena, guztien interesak kontutan hartzen dituen eta jarrera kooperatiboak, sozializatzaileak eta harremanezkoak bultzatzen dituen (Fernandez Río, Méndez Giménez, 2006).

## 2.5. Jolas kooperatiboa

### 2.5.1. Jolas kooperatiboaren izaera

Psikologiak, pedagogiak eta antropologiak jolastu hitzaren esanahiaren definizioa ematen saiatu dira . Adituen artean gehien erabilitako definizioetako bat Johan Huizingak adierazitakoa da. Honela definitzen du jolasa: “Jolasa jarduera aske bat da, denbora eta eremu jakin batean egiten dena, askatasunez onartutako arau jakin batzuk betez. Jardueraren (jolasa) helburua jarduera bera da (jolastea), eta zentzu ludikoa eta alaitasunekoa du”. Jolasa pertsonaren berezko jarduera dela pentsatzen dugu, gozamina, gogobetetasuna eta dibertimendua dakarrena. Beraz, jarduera motibatzailea da, nahita egiten dena, eta jarduera bera helburua ere bada; “Jolasa adierazpide ederrenetako bat da, eta lotutako mundu honetan aukera ematen du askatasunez mugitzeko” (Ribo, 2004, 2.or)

Jolas kooperatiboak jolas mota bat dira; AEBn eta Kanadan sortu ziren, 1960ko hamarkadan. Hamarkada bat geroago, psikologo alemaniarrek Europara ekarri zituzten: aire zabaleko jolasen barne-mekanismoak egokitu zituzten, bai eta mahai-jolas kooperatiboak sortu ere. Margaret Mead antropologoak egindako ikerketek frogatu dute lotura zuzena dagoela zenbait jolas kooperatibo egitearen maiztasunaren eta zenbait kulturatako indarkeriarik ezaren artean. Jolas tradizionalarekin alderatuta, jolas kooperatiboek beste ikuspegi bat transmititzen dute, eta aldaketak eragin ditzakete gure portaeran eta gure talde edo familiaren bilakaera-gaitasunean.

Jolas kooperatiboa tresna aparta da, sinplea, naturala, eta bizitzari sakontasun handiko mezuak dakartzana, esate baterako, positiboa eta aberasgarria dela esperimintatzea, komunikatzeko modu desberdinez gozatzea, pertsonen erritmo desberdinak errespetatzea, pentsatuz taldearen mesedetan denek ahalegin handiena egingo dutela. Horrela, jolas kooperatiboen bidez, elkartasuna eraikitzeke ezinbesteko zenbait balio transmititzen dira: inklusioa, bazterketaren orde; aniztasunaren onarpena; entzutea eta komunikatzea; autoafirmazioa; sormena eta irudimena; eta negoziazioa eta elkarrizketa. Ez badugu lortzen gauza txiki horietan gozamina aurkitzen, eguneroko bizitzan gozatzeko milaka eta milaka aukera galduko ditugu (Aldabaldetrek, 2019).

Jolas kooperatiboan parte hartzaile guztiek elkarrekin aurre egin beharreko arazo edo erronkari elkarlanaren eta lankidetzaren bidez ekiten diote, komunikazioa, arreta, elkar entzutea, empatia eta kooperazioa bezalako balioak bultzatuz. Beraz, jolas kooperatiboak elkarren zaintzarako, auto-erregulaziorako zein gatazken kudeaketarako atak irekitzen dizkigu. Jolasean, bakea, zaintza, inklusioa, sormena eta harreman horizontalak sustatzen

dituzten balioak berezko izatea lortzen badugu, balio-eskala horretan hezteko ingurune batean egingo dute haurrek ikasketa-prozesua eta etorkizunean izango diren helduen eta garatuko dituzten gizarte-dinamiken eraldaketa prozesuaren hasieran jarriko ditugu.

Ildo honetatik, Pascal Derúk ere jolas kooperatiboak eraldaketa sozialarekin lotzen ditu:

*“Nire lanbidean zenbat eta aurrerago egin, gero eta gehiago ohartzen naiz jolastea gure denbora lapurtzen digun gizarte-eredu bati aurre egiteko modu bat dela, jolasean gure denbora taldearen esku uzten baitugu. Jolastea ez da telebista ikustea, gauza on bat elkarrekin bizitzea da. Dena berehala eskatzen duen gizarte ereduari aurre egitea da jolastea, modak eta kontsumoak gonbidatutako gizarte-ereduari aurre egitea. Jolastea globalizazioari aurre egitea da, tokiko irudimeneko jolasak proposatuz, mundu guztiak gustu berak ez dituela adieraziz eta bestelako jolasetan ondo pasatuz. Jolastea indarraren legeak arautzen duen gizarteari aurre egitea da; batez ere, jolas kooperatiboak proposatzen ditugunean, txikitxoenei beren lekua aitortzen dieten jolasetan, pertsonen hauskortasunetik abiatuta zerbait eraikitzen dugunean. Gure erresistentzia-proiektua edozein dela ere, gauzarik garrantzitsuena ez dira erabili ditugun jolasak, gauzarik garrantzitsuena borondate ona da: nola hartu zaitudan jolasean, nola ematen dizudan hazteko aukera jolas eginez” (Gallego, 2019, 28. or.)*

### 2.5.2. Jolas kooperatiboan ezaugarriak

Hona hemen hiru autore desberdinek jolas kooperatiboan ezaugarrien inguruan egindako sailkapenak:

Jolas kooperatiboan praktikan ikus daitezkeen funtsezko hurrengo bost ezaugarri hauek (Orlick, 1990) jolas kooperatiboan eremu batzuetan duten askatasunari lotuta daude:

- Leihatik aske: jolas lehiakorrekin alderatuz, kooperazioak ikasleak norbaiten aurretik gelditzez arduratu ordez, bere kideek eta norberak berak jolasaren helburua lortzeaz arduratzea bilatzen du.
- Sortzeko aske: askotan jolasaren helburua lortzeko sormena erabiltzea ezinbestekoa izango da.
- Bazterketatik aske: jolas lehiakorretan gertatzen ez den bezala, jolas kooperatiboak ez dituzte trebetasun gutxiago dituzten ikasleak baztertzen. Izan ere eliminatuak diren

ikasleak sentimendu negatiboak sortu ditzazkete norberarengan. Horregatik, jolas kooperatiboetan ez dago galtzailerik, denek irabazten dute jolasaren helburua lortzen badute, parte hartzailerik baztertu gabe.

- Aukera askea: jolas kooperatiboak ikasleei aukera ematen die ekimen pertsonala sortzeko.
- Erasotik aske: eraso guztiz debekatua dago jolasaren dinamikak ikasleen arteko kolaborazioa esakatzen duelako. Eraitza positiboa ikasle bakoitzaren ahaleginen baturarekin lortzen da eta ez horien arteko oposizioarekin.

Hurrengo honetan (Slavin, 1990) parte-hartzaileek egin beharreko ekarpenetan egiten da indarra:

- Jolas guztiek helburu komun bat dute eta parte-hartzaile guztien arteko parte-hartze komuna dute.
- Parte-hartzaile guztien arteko kooperazioak eragingo du jolasaren helburua lortzea.
- Parte-hartzaileen gaitasun sozial, motor eta kognitiboak beharrezkoak dira oztupoak gainditzeko eta helburua lortzeko.

Jolas kooperatiboetan ezinbestekoak diren ezaugarrien beste sailkapen bat ondorengoa da (Omeñaca, 1998):

- Parte-hartzaile guztiek helburu komuna dute eta guztien artean lan egin behar dute hura lortzeko.
- Jolasaren helburua lorzen bada parte-hartzaile guztiek irabazten dute. Parte-hartzaileak beren artean lehiatu ordez, elementu ez gizatiarren kontra lehiatzen dira.
- Jokalariak bakoitzaren gaitasun desberdinak elkartzen dituzte. Jokalari guztiak dira beharrezkoak eta bakoitzak rol desberdina izango du.

### 2.5.3. Metodologia-egitura desberdinak

Orain arte ikusi izan ditugun ikerketa desberdinekin, ikaskuntza lehiakor eta indibidualistekin alderatuta, ikaskuntza kooperatiboaren nagusitasuna egiaztatzeko aukera izan dugu. Orain kontua da egitura mota horiek NOLA inplementatu gure arloan. Hainbat autore izan dira egitura mota horien inguruan azterketak egin dituztenak. Egitura mota horietako hiru ondorengoak dira (Velázquez, 2007).

## 2.Taula.

Autore ezberdinen metodologia egiturak

Izena	Egilea	Prozesua
<p><b>Izena:</b> Elkarrekiko ikaskuntza</p>	<p><b>Egilea:</b> (Mosston, 1978)</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parte hartzaile guztiak binaka jartzen dira.</li> <li>2. Irakasleak egin beharrekoa jakinarazten die eta martxan jartzerakoan garrantzitsuak izango diren elementuen berri ematen die.</li> <li>3. Bikotekide batek jarduera burutzen du eta besteak behatu eta akatsak zuzentzen dizkio.</li> <li>4. Jarduera burutzean rolak aldatuko dituzte.</li> <li>5. Biek egin beharrekoa bukatzean, irakasleak hurrengo lana eskaini baino lehen, egindakoa egiaztatzeko aukera izango du.</li> </ol>
<p><b>Izena:</b> Pentsatu, partekatu, ekin</p>	<p><b>Egilea:</b> (Grineski, 1996)</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakasleak erronka kooperatibo bat proposatzen die ikasleei; hau da, ikasle guztien laguntza beharrezkoa den erronka.</li> <li>2. Ikasleek, banaka, konponbide posibleak penstatzen dituzte.</li> <li>3. Ikasle bakoitzak pentsatutako konponbidea jakinarazten die gainerakoei.</li> <li>4. Aipatutako konponbide guztiak praktikan jartzen dira</li> <li>5. Konponbideen artean eraginkorrena aukeratzen da eta behin eta berriro jartzen da praktikan erronka gainditzea lortzen den arte.</li> </ol>
<p><b>Izena:</b> Nik egiten dut - Guk egiten dugu</p>	<p><b>Egilea:</b> (Velázquez, 2003)</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakasleak 4-6 pertsonako talde heterogeneoak sortzen ditu</li> <li>2. Betebehar motor bat proposatzen da, burutzeko modu egoki desberdinak dituen</li> <li>3. Taldeko kide bakoitza estrategia desberdinak frogatzen ditu eta egiteko gai den bi estrategia aukeratzen ditu.</li> <li>4. Taldeak batzen dira.</li> <li>5. Taldeko kide bakoitzak aukeratutako bi estrategietatik bat taldearekin partekatzen du eta guztiek egiteaz arduratzen da.</li> <li>6. Irakasleak talde bakoitzeko ikasle bat aukeratu dezake aukeratutako estrategiak gainerako taldeei erakusteko. Talde osoari eskatzeko aukera ere badago.</li> </ol>



#### 2.5.4. Jokaera kooperatiboak

Lagadera, Planas eta Ruiz-ek (2004) jokaera kooperatiboak aztertzeko ondorengo sailkapena egin zuten:

1. Jokaera motor kooperatibo egokiak (EGOK). Jolasaren barne logikaren eskakizunetara lotzen diren erantzunak dira.

1.1. Kooperazioa indartu.

1.2. Sakrifikatu: erantzun deseroso bat ematea taldearen arrakasta bermatzeko.

1.3. Kooperazio eraginkorrek proposatzea: rol bat baino gehiago dauden jolasetan, kide batek, gainontzekoek jarraitzeko, kooperatzeko modu desberdinak planteatzen dituenen.

1.4. Eraginkortasunez kooperatzea: kooperazioak ez dauka aparteko detailerik.

2. Jokaera motor kooperatibo ez egokiak (EZ EGOK.). Jolasaren barne logikak eskatzen duen komunikaziorako elkarrekintza desbideratua.

2.1. Eraginkortasun ezarekin kooperatzea. Etengabe erantzun ez zuzenak ematea; jarrera hau interbentzio oso zaila aukeratu izateagatik edo ekintza motorrak burutzeko gaitasunik ez izateagatik izan daiteke.

2.2. Lehia bilatzea. Nahiz eta arauak lehia ez eskatu, ekintza motorrak gainerakoak desafiatzeko intentzioarekin burutu lortzen dituen emaitzak gainerakoekin alderatuz.

2.3. Exigentzia maila handiko kooperazioa proposatzea. Rol bat baino gehiago duen kooperazio egoeretan ekintza motor zailak proposatuz kideak bideratzea.

2.4. Kalte egitea. Jolasean kideen kooperazioa zailtzea.

3. Diziplinarik gabeko jarrera motorrak (DIZ.GAB.). Arauak ez betetzea suposatzen duten jokaerak dira.

3.1. Arauak ez betetzea. Arauak baimentzen ez duten ekintzaren bat egitea.

3.2. Molestatzea. Beste batekin modu negatiboan harremandu (bultzatu, jo...)

4. Itunari lotutako ahozko jokaerak (ITUN). Jolasari ekin aurretik ematen diren erantzunak dira.

4.1. Ituna proposatu. Kideei planteatutako arazoa gainditzeko modua planteatu.

4.2. Ituna onartu. Beste batek planteatutako ituna onartu.

4.3. Itunari uko egin. Besteekin adostasunera iritsi gabe jardun.

### **3. HELBURUA**

Ikerketa honen helburu orokorra ikastetxe baten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen arteko kooperazio maila eta gelako giroa hobetzea da. Horretarako, lehenik eta behin nolako kooperazio maila duten ezagutuko da eta, ondoren, Gorputz Hezkuntzako ikasgaien esku-hartze bat aurrera eramango da.

Hurrengo lerroetan, kooperazioa hobetzeko bide horretan egindako ikerketaren fase desberdinetan (diagnostikoa, eskuhartzearen diseinua eta esku-hartzea bera) zehaztu diren azpi-helburuak azaltzen dira, horietako bakoitzaren zergatia azalduz.

#### **3.1. Diagnostikoaren helburuak**

Egoera zehatz bat hobetzeko asmoa dagoenean, esku-hartzearekin hasi baino lehen, ezinbestekoa da testuingurua aztertzea eta dagoen errealitatea ezagutzea. Izan ere, gela barruko egunerokotasuna ezagutzen ez badugu, erabaki egokiak hartzea eta estrategiak definitzea zaila izango da.

1. Eskola orduetan (jolas-orduetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, ikasgelan..) taldeak duen kohesio-maila ezagutzea.
2. Ikasleen artean ematen diren gertaerak bere ingurune naturalean sortzen diren eran deskribatzea; deskribapen adierazgarriak lortzea.
3. Ikasleen arteko harremanak ezagutzea: ikastaldeko azpitaldeak, liderrak eta isolatuta edo baztertuak dauden umeak identifikatzea.

Aztertutako horrek zehaztuko du esku-hartzearen diseinua; esku-hartzearen oinarria izango da.

#### **3.2. Diseinuaren helburuak**

Zehaztutako helburu hauen bidez, aurretik aipatutako diagnostikoaren eta geroago planteatuko den esku-hartzearen lotura zuzena egiten da:

1. Gelakideen arteko kooperazio gabezia gainditzeko eta horren garapena ahalbidetzeko jarduerak diseinatzea.
2. Eskolaren testuinguru zehatz honetan egiten den lana osatzea, identifikatu diren gabeziei aurre egiteko edo irtenbidea bilatzeko.

Sortuko den diseinuak harreman zuzena izan behar du aurretik aztertu eta behatu denarekin, bertatik lortutako informazioaz baliatzea ezinbestekoa izango baita proposamena modu egokian sortu ahal izateko.

### **3.3. Esku-hartzearen helburuak**

Aipatuko diren helburu hauek lortzea izango da aztertutako egoera hobetzeko azkenengo fasea. Egiten den proposamena helburu hauek izango ditu oinarri eta lortzen diren ala ez arabera, esku-hartzeak emaitza positiboak izan dituen baloratuko da.

1. Jokaera kooperatiboak nagusitzea
2. Arauak betetzearen garrantziaz jabetzea.
3. Jarrera lehiakor negatiboak ekiditea.
4. Jokoaren helburua lortzeko kide guztiek duten garrantziaz ohartzea.
5. Kideenganako laguntza sustatzea, enpatiaren bitartez.
6. Ikasleen arteko komunikazioa hobetzea.
7. Ikasleen arteko harreman afektiboak estutzea.
8. Konfidantzazko giroa sortzea.
9. Talde sentimendua indartzea.
10. Ikaskideen arteko elkarbizitza hobetzea, elkarrekintza diskriminatzailea eta besteenganako aurreiritziak ekidituz.
11. Errespetua eta arduraren zentzua sustatzea.
12. Erronkak gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea; ikasleen jarrera aktiboagoa sustatzea.

## **4. METODOA**

### **4.1. Parte hartzaileak eta testuingurua**

Ikerketa hau Arabako Lautadako ekialdean kokaturik dagoen Araia Herri Eskolan kokatzen da. Eskola, Araia herrian aurkitzen da, Asparrenako Udal-herriko hiriburua. Nahiz eta herri txikia izan (1.255 biztanle) inguruko eskola bakarra da bertakoa. Hori dela eta, honako herri hauetako, 2 eta 12 urte bitarteko haurrak jasotzen ditu: Albeniz, Ilarduia, Egino, Andoin, Iburguren, Urabain, Durruma, Egiraz, Bikuña, Galarreta, Zalduondo, Ametzaga eta Araia.

Araia Herri Eskola ikastetxe euskaldun, inklusiboa, laikoa, hezkidetzaila eta publikoa da eta gurasoekin elkarlanean ikasleen heziketa integrala du xede.

D ereduko ikastetxea da eta euskararen murgiltze proiektua darama aurrera. Nahiz eta udalherri hauetan gaztelania izan komunikatzeko hizkuntza nagusia, bertako biztanleek

euskararen aldeko jarrera adierazi dute beti. Gainera, urtez urte familia euskaldunen kopurua hazi egin da eskolan eta horren ondorioz, euskararen presentzia handiagoa da hezkuntza komunitatean.

Eskolan 180 ikasle inguru daude matrikulatuta, maila bakoitzean 13-25 bitarteko ikasle kopuruko ikas-talde bakarra dagoelarik (lerro bakarreko eskola). Aipatzekoa da, eskolako 180 ikasleetatik 29 atzerritarrak direla (%16,11-a): jatorri euskalduna duten ikasleez gain, Maroko, Errumania, Aljeria, Senegal eta Ghana-ko ikasleak daude eskolan.

Familien maila ekonomikoa nahiko heterogeneoa da, izan ere, azken hamar urteetan, hirietako eta beste kulturetako jendea herriratu da eta horrek eskola anitzagoa bihurtu eta bere bizitza aberastu du.

Eskolako testuinguru orokorra zein den ezagututa, aztertu dezagun ikerketa aurrera eramandako testuinguru zehatzagoa. Ikerketa Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasgelan kokatzen da, 9-10 urte inguruko ikasleekin. 25 ikaslek osatzen duten taldea da (14 neska eta 11 mutil ez osatua), horien artean Aljeriako bat eta senegaldar bat daudelarik. 25 ikasle horietatik inork ez du eskolako hizkuntza ofiziala, euskara, erabiltzeko arazo nabarmenik; denek, bakoitzak bere mailan (eskolaz kanpoko egunerokotasunean bakoitzak euskara erabiltzeko duen ohituraren arabera), euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna dute. Honekin lotuta, aipatzekoa da gelan dauden bi atzerritarrak ere ondo moldatzen direla hizkuntzarekin: senegaldarra 3 urte zituela iritsi zen Euskal Herrira, beraz, gainerako ikaskideek bezala bere ikaskuntza prozesua hasi-hasieratik euskaraz hasi du. Aljeriakoa, berriz, LH-ko lehenengo mailan iritsi zen, baino nahiz eta orain dela gutxi murgildu berarentzako berria den hizkuntza honetan, hizkuntzetarako duen gaitasun altua azpimarratzekoa da. Izan ere, gelakide asko baino hobeto komunikatzeko gai da.

Eskola txikia dela eta maila bakoitzeko talde bakarra dagoela gogoratu, aipatzekoa da nahiz eta eskolak dituen 52 urteetan ohikoena hori izan den, 4.mailako talde honek eskolako ezaugarri hori apurto duela ikasturte honetara arte: taldea Haur Hezkuntzatik bi taldetan banatuta egon izan da. Aurten, berriz, ikasle kopurua 26 ikasleetik 25-ra jaitsi denez denak gela berdinean batzea erabaki behar izan zen. Hori dela eta, nahiz eta herri berdinean edo gertu bizi orain arte, ikasle askoren arteko harremana ez dela oso estua nabarmentzen da.

#### **4.2. Tresnak**

Ikerketa bat egiteko ezinbestekoa da ikertu nahi den horren inguruko azterketa zein datu jasoketa bat egitea eta horretarako, tresna ezberdinak erabili daitezke. Lan honetan

erabili diren tresnak bi multzotan sailkatzen dira:

#### 4.2.1. Diagnostikorako tresnak

- Behaketa: gure asmoekiko neurketa egiteko tresna lagungarria da. Erabilitako behaketa mota parte hartzailea izan da (Buján, 2001). Behaketa mota hau fenomeno bat barnetik zuzenean deskribatzean datza, hau da, aztertu nahi diren pertsonen jokabidea pertsona horien bizi modua eginez aztertzea. Gertaera bere ingurune naturalean deskribatzeko, beraz, ikerlariaren esku egon diren eskola ordu guztietan (patio orduetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, irteeraren bat egin denean, jaialdietan...) adi aztertu dira ikasle guztien jokaerak eta adierazgarriak izan diren gertaerak "irakaslearen koaderno"-an apuntatu dira (1. Eranskina)
- Soziograma: prozedura soziometrikoek aukera ematen digute ikaskideen arteko harremana denbora gutxian eta azkartasun handiz ebaluatzeko, eta ikasle bakoitzaren integrazio mailaren eta integrazio horren gaineko informazioa eskuratzea ahalbidetzen digu.

Ikerketa honetan erabilitako prozedura mota *Izendapenen metodoa* da (García Bacete, 2006): ikasle bakoitzari fitxa bat banatuko zaio (2. Eranskina) eta bakoitzak taldeko zein hiru neska-mutikorekin gustatzen zaion gehien jolastea edo aisialdia ematea eta zeinekin gutxien idatzi behar izan du.

Prozedura honen bidez ikasle bakoitzak, talde horretan adiskidetasun harremanak ezartzeko dituen aukeren gaineko informazioa eskuratu ahal izan da, ondoko adierazleen arabera: hautaketak (ikasle bat zenbatetan izendatu duten ikaskideek lehenengo galderan) eta bazterketak (ikaslea zenbatetan izendatu duten ikaskideek bigarren galderan). Ikasle bakoitzak jaso dituen hautaketak eta bazterketak zenbatuta ikasleek gelan duten status-a identifikatu ahal izan da. Status horiek bereizteko autore ezberdinek egindako sailkapen ugari dauden arren, ikerketa honek González Álvarez-ek (1990) egindakoa hartu du oinarritzat: liderra (hautaketa asko eta bazterketa gutxi izan dituen), baztertua (hautaketa gutxi eta bazterketa asko izan dituen) eta ahaztuak (ez hautaketak ez bazterketak izan dituztenak).

Horiez gain, nahiz eta modu formalean ez den erabili eta tresna bezala ez izendatu, aipatzekoa da ere 4. mailako tutorearekin eta G.H-ko irakaslearekin elkarrizketak egin direla. Elkarrizketa horietan ikasleen irakasle bezala ikasgelako giroa eta euren arteko harremanak nola ikusten dituzten galdetu zaie behaketan lortutako datuak kontrastatzeko asmoarekin.

#### 4.2.2. Esku-hartzerako tresnak

Hona hemen esku-hartzean zehar erabilitako hainbat tresna:

- Errubrika: produktu, proiektu edo lan batean ikasleetatik espero dena jasotzeko gidak dira. Ikerketa honetan ikasleen jarrerak aztertzeko sortutako errubrika marko teorikoan aipatutako Lagadera, Planas eta Ruiz-ek (2004) jokaera kooperatiboak aztertzeko egindako sailkapenean oinarritzen da (3. eranskina).
- Laburpenak: esku-hartzearen saio guztietan, adierazgarriak izan diren gertaterak edo jarrerak idatzi dira irakaslearen koadernoan (4. eranskina).

Aipatutako tresna bakoitza aurreko atalean zehaztutako helburuekin lotzen da (5. Eranskina)

#### 4.3. Prozedura

Ikerketaren lehenengo pausua landu den gaiaren (eskola giroa eta ikaskuntza kooperatiboa) inguruko *bilaketa bibliografiko* sakona egitea izan da. Ezinbestekoa da prozesuan zehar jarraitu behar diren fase guztietan gaiari “ondo jantziak” egotea hartu behar diren erabakiak eta egiten diren proposamenak koherentzia eta oinarri finkoak izateko. Modu horretan, kooperazioan adituak diren autoreek idatzitako artikulu, liburu eta dokumentuak irakurri eta ikerketa aurrera eramateko beharrezkoa izan den informazioarekin marko teoriko bat osatu da.

Behin beharrezko informazioa jasota, aukeratutako gelaren *diagnostikoa* egin da. Horretarako erabili diren tresnetako bat behaketa da; hilabete oso batez eskola ordu guztietan gelakideen arteko harremanen eta sortutako gatazken behaketa egin da. Gelakideen arteko egunerokotasun hori aztertzeko ikasleen konfiantza eta gertutasuna bilatu da. Diagnostikoa egiteko erabili den beste tresna bat soziograma izan da. Gorputz Hezkuntzako saio baten amaieran, “ispilu-gela”-ko lurzoruan sakabantzeko eskatu eta bete beharreko fitxa azaldu eta banatu zaie. Bakoitzak bere kabuz, inorekin norberaren erantzunak partekatu gabe betetzea gomendatu zaie eta musika lasaia jarrita 10 minutu utzi zaie fitxa betetzeko. Denen fitxak batu ondoren, datuak atera eta gelako ikasle guztien egoera sozialaren berri ematen duen taula sortu da (3. taula). Hala ere, diagnostikoa osatzeko, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin eta taldearen tutorearekin elkarrizketa informalak egin dira ikasleekin denbora asko pasatzen duten irakasleak izanda, beren iritziak eta iradokizunak kontutan hartzeko.

Diagnostikoa eginda, ikasleen arteko kooperazioan sumatu diren arazoekin helburu

batzuk finkatu eta horiek kontutan hartuta, ahulguneak hobetzeko jarduerak *diseinatu* dira. Horretarako, iturri desberdinetako adibideak aztertu eta momentuko egoerara eta beharretara moldatutako jolas eta ariketaz osatutako unitatea diseinatu da.

Hurrengo pausua unitatea martxan jartzea izan da, baino gure ikerketaren helburu orokorra ikasleen arteko kooperazio maila handitzea dela gogoratu, garapen horren *azterketa* egiteko errubrika osatu da. Errubrika horrek marko teorikoan azaldutako Lagadera, Planas eta Ruiz-en (2004) ikerketa hartu du oinarritzat eta horren bidez, saio bakoitzean zehar ikasle bakoitzaren jokaerak jaso dira ondoren horiek aztertzeko. Errubrika erabiltzeaz gain, saioetan adierazgarriak izan diren gertakizunak ere idatzi dira, saio bakoitzaren laburpenak jasotzen dituen liburuxka sortuz.

## **5. EMAITZAK**

Atal honetan, helburuen arabeko emaitzak azalduko dira, hau da; diagnostiko, diseinu eta esku-hartzearenak. Horretarako, atal bakoitzean finkatu diren helburuak kontuan hartuz, horiek bete diren edo ez antzemango da.

### **5.1. Diagnostikoaren emaitzak**

Jarraian, diagnostikoa egiteko erabili den tresna bakoitzarekin lortutako informazioa adierazten da.

#### **5.1.1. Behaketa**

Diagnostikoa egiteko hilabete batez eskolako esparru ezberdinetan ikasleen jokabidearen behaketarekin jaso den informazio esanguratsua ondorengo da:

- Gorputz Hezkuntzako saioetan taldeak egiteko zailtasunak. Gorputz Hezkuntzako saioetan egiten diren jolas gehienak aurrera eramateko taldeak sortzea ezinbestekoa izaten da. Irakasleak, beste maila guztietan bezala, ikasleei ematen die aukera taldeak beren kabuz osatzeko. Ezartzen duen arau bakarra taldeak heterogeneoak izatea da. Gainerako mailetan, orokorrean, gai izaten dira irakaslearen esku-hartzerik gabe taldeak osatzeko, baino laugarren mailako ikasleen artean gatazkak sortzen dira beti: gertuko lagunekin batera ez badaude haserretu egiten dira, gustuko ez duten norbaitekin tokatzen zaienean komentario desatseginak egiten dituzte...
- Arauak betetzeko zailtasunak. Saioak hasi baino lehen errutina bezala saioan zehar bete beharreko arau orokorrak gogoratzen dira (materiala zaintzea, kideenganako

errespetua, enpatia, taldekideen erabakiak kontutan hartzea...). Horrez gain, jolas bakoitza azaltzen denean ere arau espezifikoak adosten dira. Egindako behaketan ikasle gehienek arauak betetzeko zailtasunak dituztela ikusi da. Ikasleek tranpak egiten dituzte beren helburu nagusia irabaztea delako eta hori lehiaren alderdi negatiboarekin lotzen da zuzenean.

- Talde sentimendu txikia. Talde batek jolasa galtzen duenean taldekideen aurkako komentarioak entzun dira askotan: “Bere errua izan da”, “Berak ez duelako ondo egin galdu dugu”... Hau da, egindako lana edo lortutako emaitza, talde osoarena izan beharrean, ikasle zehatz batzuei egozten zaie. Emaitza positiboak lortzen direnean barne egozpen positiboak nabarmentzen dira, baina jarduerako helburua ez denean lortzen edo gainerako taldeek baino beranduago lortzen baldin bada kanpo egozpen negatiboak agertzen dira.
- Kideen arteko komunikazio eza. Jolas askoren muina taldekideen arteko komunikazioa da: estrategiak adostea, informazioa partekatzea, aholkuak ematea... Behaketan komunikazioa falta izugarria nabaritu da ikasleen artean. Ez dute beren artean hitz egiten, bakoitza bere modura, inorekin erabakiak hartu gabe, aritzen da.
- Ikasle batzuen parte-hartze aktiborik ez. Taldekako jolasetan, gainerakoetan bezala, denon parte-hartzea bilatzen da, baina gela honen praktika aztertuta argi ikusten da ez dela hori gertatzen. Joko gehienetan parte-hartze nabariena ikasle berdinek izaten dute eta gainerakoak, normalean, jolasetik kanpo mantentzen dira.
- S.G. ikaslearen gertaera adierazgarria. 3. eta 4. mailakoak astean behin igerilekura joaten dira GHko ordu lektiboen parte bezala. Autobusak 11.15-etan eskolan jaso eta Aguraineko pizina hurbiltzen ditu, 13.00-etan jantokira bueltatzeko berriz jasotzen dituen arte. Bertan neskek eta mutilek aldagela ezberdinak erabiltzen dituzte eta irakasleok ere banatu egiten gara aldageletan daudenean laguntza eskaintzeko. Behaketaren bigarren astean ikasle bat busti-busti eginda atera da mutilen aldagelatik. Pizinatik atera eta aldagelan sartu denean ez du bere motxila aurkitu eta denbora luzez bilatzen egon eta gero, komuneko zuloan aurkitu da, motxila barruan gordeta zegoen guztia bustita agertu delarik. Ordu horietan eskolako ikasleak daudela kontutan hartuta, gelako kideren bat izan dela argi dago.



### 5.1.2. Soziograma

Ikasleek betetako fitxa jaso ondoren, bertatik ateratako informazioarekin taula bat sortu da (3. taula). Modu horretan, ikasleen arteko harremanak modu adierazgarriagoan aztertu ahal izango dira.

#### 3. Taula

Ikasleek betetako fitxako dautekin osatutako taula

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	
1						6		5								6	5			6			3			
2	6					6											5								6	6
3							5		6	6											6					
4					5				6		6												6	5	6	6
5											6				5								6			
6	6															6	5	5		6						6
7	6							5								6										
8	6					6										6										
9	6					6								5			5			6						6
10	6				5			6						5						6					5	6
11											6											6	6			
12							5				6									6	6		6		5	6
13											6									6	6	6				
14							6	6		6										6	6					6
15							5					6								6	6	6				6
16	6					6											5	5		6	6		6	5	6	6
17	6					6										6		5		6	6		6	5	6	6
18	6						5								5	6				6	6		6	5	6	6
19				5				6			6				5					6	6	6				
20			5				6	6		6			5							6	6		6			
21							5		6		6									6	6		6			
22											6	6								6	6		6			
23											6				5					6	6		6			
24					5										5					6	6	6				6
25				5				6			6									6	6	6				6
	9	0	0	0	1	6	1	5	2	2	6	7	0	1	2	6	5	0	6	1	4	6	3	0	0	
	0	0	1	2	2	0	4	1	4	0	0	0	1	1	3	0	0	3	1	15	1	0	4	6	6	

\*Oharra: berdez boto positiboak; gorriz boto negatiboak; urdinez emakumezkoak; laranja gizonezkoak

Lortutako datuak kontutan hartuta (zenbateko aukeratu eta baztertu kopurua), datu

adierazgarrienak izan dituzten ikasleak hiru multzotan sailkatu dira: ahaztuak (2, 3, 13 eta 14), liderrak (1, 6, 11, 12, 16, 19 eta 22) eta baztertuak (20, 24 eta 25).

Sailkapen bakoitzean ikasle bat baino gehiago aipatu den arren, sailkapen bakoitzeko kasu adierazgarrienak ondorengoak dira: gelako ikasle ahaztuena 2 da, kideen %0-ko aukeraketa izan duelarik (ez positibo, ez negatibo); liderra, 1, %12,3ek aukeratua; eta baztertua, 20, kideen %27,3-ak berarekin egotea ez zaiela gustatzen bozkatuta.

Taulako datuek ikasle bakoitzak gelan duen "status"-a identifikatzeko aukera emateaz gain, gelako azpi-taldeak zeintzuk diren ezagutzeko informazioa eskaintzen digu. Jasotako datuen arabera, ondorengoak dira gelan dauden 4 azpi-talde zehatzak:

- 1. Taldea: 1, 6, 16 eta 17
- 2. Taldea: 11, 12 eta 22
- 3. Taldea: 15, 19 eta 21
- 4. Taldea: 20 eta 23 (bi ikaslek bakarrik osatzen duten arren, ikerketarako esanguratsua den harremana da. Izan ere, 20 gelako baztertua dela gogoratuz, 23-ren babesa daukala erakusten da).

Aipatutako lau talde hauek gelan dauden talde itxi bakarrak dira; hau da, taldea osatzen duten kide guztiak gainerakoak aukeratu eta gainerakoengandik aukeratuak izan dira. Kontuan izanda gelan hogeita bost ikasle daudela eta talde horiek osatzen duten pertsonak hamabi direla, gainerako hamairu ikasleak azpi-talde finkorik gabe, sortuak dauden horien onarpenaren bila aritzen dira etengabe.

Mutilen artean, ikaslerik adoratuen 12 da eta nesken artean 1. Datuak azterzerako orduan bi sexuen arteko bereizketa hau egitearen arrazoia, soziograma azterterako orduan gelako neska-mutilen arteko harremana oso baxua dela ikusi ahal izan delako izan da. Hori, alde batetik, aurretik aipatutako lau talde zehatz horietatik bat ere ez dela mistoa ohartzean eta bestetik, boto positiboen banaketan nabaritu da; neskek neskak aukeratu dituzte eta mutilek mutilak. Arau hori jarraitu ez duten bakarrak 4, 11 eta 23 dira.

Aurretik aipatu bezala, nahiz eta tresna ofizial bezala ez erabili, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin eta taldeko tutorearekin elkarrizketak eduki dira gelako giroa nolakoa iruditzen zaien ikusteko eta biek erantzun nahiko antzekoak eman dituzte. Orokorrean, aipatu dute taldetxo txiki asko daudela eta talde horietako kideek zailtasunak izaten dituztela gainerakoak onartzeko. Horrez gain, enpatia eta errespetu gutxi erakusten dutela

gainerakoengan eta euren arteko komunikazioa ikaskide bezala oso eskasa dela. Bi irakasleek hau 25 ikasleak batera dauden lehenengo urtea izatearekin lotzen dute.

### *5.1.3. Diagnostikoaren laburpena*

Behaketan, soziograman eta elkarrizketetan lortutako emaitzak kontutan hartuta gela honetako kohesioa eta kooperazioa txikia dela ondorioztatu daiteke.

Ikerketaren fase honetarako zehaztutako hiru helburuak gogoratu eta horiek betetzea lortu diren aztertu dezagun:

- 1. Eskola orduetan (jolas-orduetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, ikasgelan..) taldeak duen kohesio-maila ezagutzea.*
- 2. Ikasleen artean ematen diren gertaerak bere ingurune naturalean sortzen diren eran deskribatzea; deskribapen adierazgarriak lortzea.*

Egindako diagnostikoan elkarrekin lotuta doazen bi helburu hauek betetzea lortu da. Horretarako erabili den tresnarik nagusiena behaketa izan da, eta nahiz eta behaketarik datu zehatzak ez diren lortzen eta gertaera adierazgarri guztiez jabetzea oso lan zaila den, ikasleen arteko harremanak nolakoak diren ezagutu ahal izan da.

- 3. Ikasleen arteko harremanak ezagutzea: ikastaldeko azpitaldeak, liderrak eta isolatuta edo baztertuak dauden umeak identifikatzea.*

Fase honen azkenengo helburua ere lortu da. Nahiz eta soziogramatik ateratako datuen azterketa konplexua izan den, esku-hartzea diseinatzeko datu esanguratsuenak ezagutzeko eta prozesuan zehar zertan jarri behar den arreta jakiteko oso erabilgarria izan da.

## **5.2. Diseinuaren emaitzak.**

Diagnostikoan sumatutakoa kontutan hartuz, eta ikasleen arteko harremanak eta kooperazio gabezia hobetzeko asmoz, egoera zehatzera egokitutako unitate didaktikoa diseinatu da. Unitatea esku-hartzean zehaztutako helburuak betetzeko asmoarekin diseinatutako 9 saiok osatzen dute; 6. eranskinean diseinu hori aurkezten da, saio bakoitzean planteatzen diren jardueren azalpen zehatza, beharrezko materiala, denbora, espazioaren antolaketa... azaltzen direlarik. Hemen proposamen didaktiko horren justifikazioa, arazo egoera eta curriculumarekin duen lotura aurkezten dira (1. koadroa).

## 1. Koadroa.

Unitate didaktikoaren funtsa

UNITATE DIDAKTIKOA			
<b>Ikasgaia</b>	Gorputz Hezkuntza		
<b>Izenburua</b>	Jolas kooperatiboak		
<b>Maila</b>	L.H. 4.maila	<b>Saio-Kopurua</b>	9
JUSTIFIKAZIOA			
<p>Jolas kooperatiboan parte hartzaile guztiek elkarrekin aurre egin beharreko arazo edo erronkari elkarlanaren eta lankidetzaren bidez ekiten diote, komunikazioa, arreta, elkar entzutea, enpatia eta kooperazioa bezalako balioak bultzatuz. Beraz, jolas kooperatiboak elkarren zaintzarako, auto-erregulaziorako zein gatazken kudeaketarako atak irekitzen dizkigu.</p> <p>Jolasean, bakea, zaintza, inklusioa, sormena eta harreman horizontalak sustatzen dituzten balioak berezko izatea lortzen badugu, balio-eskala horretan hezteko ingurune batean egingo dute haurrek ikasketa-prozesua eta etorkizunean izango diren helduen eta garatuko dituzten gizarte-dinamiken eraldaketa prozesuaren hasieran jarriko ditugu.</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=qvF3jfSWq8A">https://www.youtube.com/watch?v=qvF3jfSWq8A</a></p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=gtwtA0MmqPI">https://www.youtube.com/watch?v=gtwtA0MmqPI</a></p>			
ARAZO EGOERA			
<b>Testuingurua</b>			
<p>Kurtsoa hasi denetik, Gorputz Hezkuntzako irakasleak, laugarren mailako klase honetako ikasleen arteko harremanetan arazoak sumatu ditu. Ikastetxeko gainerako klaseekin alderatuta, gela oso handia da (25 ikasle) eta talde txiki asko sortzen dira. Egoera horrek gainerako kideekin duten harremana mugatu egiten du.</p>			
<b>Arazoa</b>			
<p>Elkarlanean aritzeak komunikazioa eta elkar ulertzea eskatzen du, gai izango zarete hurrengo jardueretan hori lortzeko?</p>			
<b>Xedea</b>			
<p>Ekintza motor kooperatiboan bidez, xede komun bat lortzeko elkarrekintzan aritzea.</p>			
<b>Helburuak</b>			
<p>Gelako kide guztien parte hartzea bultzatzea eta denen lankidetzarekin pieza bakar bat osatzeak sortzen duen plazerraz ohartzea.</p>			
<b>Ataza</b>			
<p>Taldekide guztiek parte hartzen duten jolasetan era kooperatiboan aritzea.</p>			

## CURRICULUMAREKIN LOTURA (Heziberri 2020, 2016)

### Oinarrizko Konpetentziak

#### **A. ZEHARKAKOAK**

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia

#### **B. IRAKASGAIARI DAGOZKIONAK.**

Konpetentzia motorra

### Helburu Didaktikoak

1. Nork bere buruarenganako konfiantza eta norberaren ongizatea sustatu.
3. Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera iristea nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.
7. Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.

### Edukiak

#### **1. MULTZOA. Eduki komunak**

- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea
- Gatazkak kudeatzea
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea
- Norberaren jokabide morala erregulatzea

## Ebaluazioa

a) Ebaluazio adierazleak: (3. Eranskina)

b) Tresnak: (3. Eranskina; 4. Eranskina)

### 5.3. Esku-hartzearen emaitzak

Jarraian, esku-hartzean zehar erabili den tresna bakoitzarekin lortutako informazioa adierazten da.

#### 5.3.1. Errubrika

Metodoan aipatu den bezala, unitateko saio bakoitzean ikasleen jokaera kooperatiboak kuantifikatzeko errubrika bat bete da. Ondorengoak dira ikasle bakoitzaren errubrika horietatik ateratako datu guztien batura (4. taula).

#### 4. Taula.


Jokaera kooperatibo eta ez-kooperatiboen kopurua

	<b>JOKAERA KOOPERATIBOAK</b>	<b>JOKAERA EZ KOOPERATIBOAK</b>
<b>1.SAIOA</b>	7	23
<b>2.SAIOA</b>	9	25
<b>3.SAIOA</b>	8	22
<b>4.SAIOA</b>	18	19
<b>5.SAIOA</b>	17	17
<b>6.SAIOA</b>	16	15
<b>7.SAIOA</b>	23	10
<b>8.SAIOA</b>	29	6
<b>9.SAIOA</b>	24	7

Saioak aurrera joan ahala ikasleen jokaeretan emandako garapena bisualagoa izateko asmoarekin, taulako datuekin jokaera kooperatibo eta ez kooperatiboen kopurua adierazten duen grafikoa sortu da (1. grafikoa).

## 1.Grafikoa

Jokaera kooperatibo zein ez kooperatiboen garapena



Grafikoak adierazten duen moduan, esku-hartzearen lehenengo saioan jokaera ez kooperatiboak nagusitzen dira ikasleen artean. Baina unitatearen amaieran aldaketa nabaria ikusten da, jokaera kooperatiboak nagusitzen direlarik. Jokaera mota bakoitzaren aldaera zehatzago aztertuz hurrengo ikus daiteke: jokaera kooperatiboek lehenengo saiotik azkenengo saiora %242ko igoera izan dute eta jokaera ez kooperatiboek, %70aren jaitsiera.

Grafikoa sakonago aztertuz, esan daiteke 3. eta 4. saio bitartean eman dela kooperazioaren garapen nabarmenena. Nahiz eta hurrengo saioetan jokaera kooperatiboek kopurua jaitsi egiten den, jokaera ez-kooperatiboena ere asko jaisten dela ikus daiteke. 6. saiotik aurrerako datuetan berdin gertatzen da, hau da, erronka kooperatiboek saioetan, emaitzak hobekien bilakatzen doazela argi ikus daiteke lerro berdearen izugarritzko hazkuntza ematen delarik.

Nahiz eta gelakide guztietatik lortutako datuak batuz gero garapen argia egon dela ondorioztatzen den, ikasle bakoitzaren garapena ez da berdina izan (7. eranskina). Orokorrean, denek izan dituzte emaitza positiboak, baina bakoitzak garapena ezberdina izan du. Hura aztertzeko, bost multzotako sailkapen bat egin da.


- Jokaera ez kooperatiboek kopurua jaitsi eta jokaera kooperatiboek kopurua igo

dutenak (2. grafikoa). Ia ikasle gehienak talde honetan sartzen dira. Ikasle hauetan, saioak aurrera joan ahala, jokaera ez kooperatiboen gutxitzea eta jokaera kooperatiboen igoera nabaritu da.

- o Ikasleak: 2, 3, 4, 8, 9, 11, 15, 16, 20, 21, 22, 24 eta 25

## 2.Grafikoa

1. multzoa: jokaera ez kooperatiboak behera, jokaera kooperatiboak gora




- Jokaera ez kooperatiboen kopurua jaitsi dutenak. Talde honetako ikasleak, nahiz eta jokaera kooperatiboen igoera nabarmenik ez duten erakutsi, jokaera ez kooperatiboen murrizketa egitea lortu dute.

- o Ikasleak: 1 eta 19



### 3.Grafikoa


2.multzoa: jokaera ez kooperatiboak jaitsi



- Jokaera kooperatiboen kopurua igo dutenak. Kasu honetan, nahiz eta jokaera ez kooperatiboen gutxitzea adierazgarria ez izan, ikasle hauen jokaera kooperatiboak areagotzea lortu da.
  - Ikasleak: 13 eta 18

### 4.Grafikoa


3.multzoa: jokaera kooperatiboak igo



- Unitate osoan zehar berdin mantendu direnak. Talde honetan sartutako ikasleak esku-hartzean zehar beren jokabideetan aldaketa nabarmenik izan ez dituztenak dira. Hala ere, aipatzekoa da talde hau osatzen duten bost ikasleak hasieratik beren parte-hartzean jokaera kooperatiboak nagusitzen diren ikasleak direla.
  - Ikasleak: 4, 7, 12, 14, 17

## 5.Grafikoa


4.multzoa: jokaerak mantendu



- Parte-hartzea handitu dutenak. Grafikoak aztertuz, saioak aurrera joan ahala, ikasle batzuen parte-hartzea handitu dela ikus daiteke. Datu interesgarriak dira, parte-hartzea areagotzearekin batera, jokaera kooperatiboak agertu direlako.
  - Ikasleak: 6, 10 eta 23

## 6.Grafikoa

5.mutzoa: parte-hartzearekin batera jokaera kooperatibo kopurua handitu



### 5.3.2. Laburpenak

Unitatearen saio bakoitzaren ostean egindako laburpenetan jasotako gertakizunekin ere ikasleek izandako garapena argi ikusten da. Lehenengo eta bigarren saioko laburpenetan ikasleen helburu bakarra jolasa irabaztea dela azaltzen da. Beren nahia irabaztea bada ere, hura lortzeko ez dute taldeko estrategiarik adosten, ez dira beren artean koordinatzen eta euren arteko komunikazioa nulua da. Arazoak sortzen direnean edo zerbait gaizki egiten denean errua gainerakoei egozten zaie, ez da talde sentimendurik nabaritzen. Horrez gain, gainerakoenganako errespetu eta enpatia gutxi erakusten dute jolas gehienetan eta beren lagunak alboan ez dituztenean aurpegi txarrak nagusitzen dira. Azkenik, nahiz eta behin baino gehiagotan errepikatzen den gauza izan, ikasle gehienek ez dituzte jolaseko (zehatzak) zein irakasgaiko (orokorrak) arauak betetzen.

Hirugarren eta seigarren saio bitarteko laburpenetan aldaketa izugarria nabaritzen da batez ere taldeko komunikazioan. Jokoa irabazteko intentzioarekin egiten badute ere, taldekideen artean adostasunera iristen saiatzen dira, estrategiak adosten dituzte, proposamen desberdinak hartzen dira kontutan... Ikasle batzuk ulertzen hasten dira denon laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa dela eta hori dela eta, jolasean zehar taldekideei zuzendutako gomendioak entzuten hasten dira. Hala ere, ikasle askok oraindik beren

hurbileko lagunetatik haratago doan kontaktua saihesten jarraitzen dutela ikusten da, baina gainerako taldekideek horrelako arazoak jolasaren erritmoa mozten duela ikustean arreta deitu eta zentzurik gabeko arazo horiek albo batera uzteko eskatzen diete. Horrez gain, ikasleek oraindik zailtasunak dituzte galtzailerik gabeko jolasak normalizatzeko.

Azkenengo hiru saioetan, erronka kooperatiboari eskainitakoetan, jarduera mota horietan hain garrantzitsua den arauen betetzea, itunen adostasuna, komunikazioa, konfiantza eta elkarrekiko laguntza eman da. Laburpenetan taldeak egiterako orduan ikasle bakar batekin sortutako arazoa da adierazten den alde negatibo bakarra.

### 5.3.3. Diagnostikoaren laburpena

Esku-hartzean erabilitako tresna ezberdinekin lortutako datuek emaitza positiboak erakusten dituzte. 5. taulan fase honetako helburu bakoitza bete den edo ez adierazten da.

## 5. Taula

Esku-Hartzearen Helburuen betetze maila

HELBURUAK	BAI	EZ	BATZUETAN
1. Jokaera kooperatiboak nagusitzea.	X		
2. Ikaskideen arteko elkarbizitza hobetzea, elkarrekintza diskriminatzailea eta besteenganako aurreiritziak ekidituz.			X
3. Errespetua eta arduraren zentzua sustatzea.			
4. Arauak betetzearen garrantziaz jabetzea.	X		
5. Ikasleen arteko harreman afektiboak estutzea.			X
6. Jarrera lehiakor negatiboak ekiditea.			X
7. Ikasleen arteko komunikazioa hobetzea.	X		
8. Talde sentimendua indartzea.	X		
9. Jokoaren helburua lortzeko kide guztiek duten garrantziaz ohartzea.	X		
10. Konfidantzazko giroa sortzea.			X
11. Kideenganako laguntza sustatzea, enpatiaren bitartez.	X		
12. Erronkak gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea; ikasleen jarrera aktiboagoa sustatzea.	X		

## 6. ONDORIOAK

Ondorengo lerroetan ikerketa aurrera eraman ondoren atera diren ondorioak azaltzen dira. Horretarako, lehenengo, proiektu hasieran zehaztutako helburuak eta lortutako emaitzak kontrastatuko dira.

Diagnostikoari dagokionez, zehaztutako lehenengo bi helburuak ikasleen arteko kohesio maila ezagutzean eta gertaera adierazgarrietan oihartzean laburtzen dira. Gogoratu horiek betetzeko aukeratutako tresna behaketa izan dela; behaketa ez da tresnarik objektibo edo fidagarriena, are gutxiago behaketa partehartzailea bada, gertatzen diren gauza guztiez jabetzea ezinezkoa delako eta nahiz eta umeengan hurbiltasun eta konfidantzazko giroa sortzea lortu, irakaslea aurrean dagoenean modu desberdinean jokatzeko dutelako. Hala ere, ikasgelako harremanen egoeraren berri izatea lortu da; ikasle gehienek taldeak egiterako orduan hurbileko lagunekin ez badaude gainerakoenganako hitz itsusiak eta haserre aurpegiak erakutsi dituzte, jolaseko zein gelako arau orokorrak ez betetzeko ohitura txarra dute eta horrek kideenganako errespetu gutxi erakusten du, ikasleen arteko komunikazio oso txikia nabaritu da jolasean indibidualki aritzen direlarik, ikasle askoren parte-hartzea oso txikia dela sumatu da...

Lehenengo fase honen azkenengo helburua, soziograma baten bidez, ikasleen arteko harreman sareak ezagutzea izan da. Ikasleek betetako fitxetatik ateratako datuak aztertzeke modu ugari badaude ere, ikerketa honetan aukeratutakoa González Álvarez-ek (1990) planteatzen duena da. Honek, ikerketan zehar ikusten den bezala, ikasleak hiru multzotan soilik sailkatzen ditu: liderrak, ahaztuak eta baztertuak. Ikasle guztiek ez dituzte parametro horien barruan sartzen diren datuak, baino nahiz eta sailkapen konplexuagoak egiten dituzten autoreak egon, erabilitakoa esku-hartzerako beharrezkoa den informazioa eskuratzeko nahikoa izan da. Soziogramaren bitartez jaso ahal izan diren ebidentzien artean 1 ikaslea gelako liderra, 20-a baztertua eta 2-a ahaztua dela da. Horrez gain, gelako lau talde itxiak nortzuek osatuta dauden ezagutu ahal izan da, denak sexuari dagokionez homogeneoak direla aztertuz. Beraz, diagnostikoan egindako lana baliagarria izan da ondoren diseinua egiteko beharrezko informazioa lortzeko eta unitatean zehar jolasetan aritzeko taldeak osatzeko.

Esku-hartzeari dagokionez, asko izan dira definitutako helburuak, baino denak bata besteari lotuta doaz. Aipatutako lehenengoa, eta gainerako guztiak barnebiltzen dituen, ikasleen jokaeren artean jokaera kooperatiboak nagusitzea da. Hura kontrolatzeko, alde batetik, Lagadera, Planas eta Ruiz-ek (2004) egindako sailkapenarekin sortutako errubrika bat erabili da eta bertatik lortutako datuek unitatean zehar autoreek egindako sailkapenaren

araberako jokaera kooperatiboek gora egin dutela erakusten dute.

Bestetik, diagnostikoan behatutakoaren inguruan hausnartu ondoren, ikasleen ahulguneak detektatu eta horiekin zuzenean lotutako helburuak sortu dira. Helburu guzti horiek bata bestearekin kateaturik egoteko sortu dira; hau da, bata lortzen denean hurrengo ere betetzen da. Modu horretan, nahiz eta bakoitza bere mailan bete den (ikus taula) eta denak ez diren ahulgune izatetik aldendu, denetan hobekuntzak eman direla esan daiteke.

Ikasleek jolasetan tranpak egiteko duten ohitura txarra ikusita, ezarritako lehenengo helburua arauak betetzearen garrantziaz jabetzea izan da. Horretarako, nahiz eta jolas edo saio zehatzik ez den diseinatu, etengabe arauen garrantziaz gogoratuz eta tranpen aurrean serio jarriz poliki-poliki jokaera mota horiek gutxitzen joan direla nabaritu da. Hala izan da orokorrean arauak betetzeko hartutako joera, saioak aurrera joan ahala, ikasleren bat arauak bete ez dituenen gainerako taldekideak deitu izan diotela arreta.

Lehenengo helburu hori lortzea, bigarren helburua den jarrera lehiakor negatiboak ekiditea ekarri du aldi berean. Horrek ez du esan nahi lehia desagertzea bilatu behar denik; lehiatzea ez da txarra, beti ere tresna bezala erabiltzen badugu. Izan ere, kirolen muina norbanakoaren trebetasunak proban jartzea da eta horrek irabazten edo galtzen irakasten digu. Irakasleen zeregina arlo honetan, lanetan oinarritutako helburuak aurkeztea da eta ez emaitzetan oinarritutakoak (Alastrué eta González, 2017). Planteatutako jolasen helburuak lanetara bidetatzen ahalegindu arren, oso zaila izan da umeez irabaztearen etengabeko nahi hori alboratzea lortzea. Beraz, zehaztutako helburuetatik hau izan da zailtasun gehien suposatu duena; baino nahiz eta guztiz desagertzea lortu ez den, aurrerapen txikiak nabaritu dira. Nahiz eta ikasle askoren helburua irabaztea (emaitza) izan, ikasle askok unitatean zehar emaitza hori lortzeko bideei erreparatu eta horien garrantziaz ohartu dira.

Ikasleek beren helburua emaitzan zein prozesuan ezartzeak, helburu hori lortzeko kide guztiek duten garrantziaz jabetzea eragiten du. Modu horretan, kideenganako laguntza agertzen hasten da, ikasleen arteko komunikazioa ere hobetuz. Izan ere, taldean lan egitearen abantaila bat, taldearen antolaketa hobetzeko nahian, ideiak eta ikuspuntuak gainerakoekin partekatzean, nahitaez, komunikazioa hobetzen dela da. Talde batek ez du ondo funtzionatuko osatzen duten kideak ez badira gai euren artean modu eraginkorrean komunikatzeko; bai sortzen diren gatazkak edo arazoak konpontzeko zein jolaserako beharrezko estrategiak adosteko (UNILEÓN, 2013). Modu honetan, ikasleetan jokaera berriak agertu dira: jokoarekin hasi aurretik estrategia ezberdinak pentsatzeko denbora eskatzen hasi dira, jolasean zehar gomendio edo aholkuak ematen dizkiote elkarri...

Enpatiaren agerpen eta ikasleen arteko komunikazioaren handiagotze horrek, euren arteko harreman afektiboak estutzea eta konfiantzazko giroa sortzea dakar. Noski ikasle gehienak taldeak sortzerako edo kontaktuzko joko batzuk aurrera eramateko orduan hurbileko lagunekin egotea nahiago dutela, baino hasierako saioetan ez bezala, amaierakoetan harremana eskatzen duten jardueretan ez dira hainbeste gatazka sortu. Modu horretan, talde sentimendua indartzea lortu dela esan daiteke (Mercedes, 2014)

Ikaskideen arteko giroa hobetuta eta talde sentimendu hori indartuta, ikasleek erronka desberdinak gainditzeko eztabaidetan eta praktikan modu aktiboagoan parte hartzeko aukera eta motibazioa lortu dute.

Aipatutako helburu guzti horiek lortu direla egiaztatuz, elkarrekintza diskriminatzailea eta besteenganako aurreiritziak ekidituz ikaskideen arteko elkarbizitza hobetzea eta errespetua eta arduraren zentzua sustatzea lortu dela esan daiteke.

Nahiz eta lehen aipatu bezala, esku-hartzeko helburu guztiak barnebiltzen dituen helburua jokaera kooperatiboak nagusitzea izan, jokaera positibo horiek nagusitzearekin batera jokaera ez kooperatiboak gutxitzea ere bilatzen da. Egia da jokaera kooperatiboak ez direla guztiz desagertu, baino kontutan izan behar dugu sei asteetan zehar eta soilik 9 saioen bidez egindako proiektu batekin ia ezinezkoa litzatekeela hainbesteko aldaketa gertatzea.

Hala ere, ziurrenik ikasturtean zehar kooperazioa lantzen jarraituz gero oso emaitza positiboak lortu daitezke. Honek ez du esan nahi ikasturte osoko programazioko jarduerak espreski kooperazioa lantzekoak izan behar direnik, baina bai nahiz eta helburu nagusia kooperazioa lantzea ez izan, ikasleei kideekin lan egiten eta hauek errespetatzearen garrantzia indartu eta transmititu behar zaiela.

Esku-hartzeak emaitza positiboak izan dituela argi badago ere, badaude hobetu daitezkeen hainbat aspektu. Ikus ditzagun zeintzuk diren ikerlan honen **muga edo limitazioak** eta horiei lotutako **hobekuntza proposamenak**.

Soziogramako datuak aztertzerako orduan, ikasleen harremanak modu bisualago batetan adierazteko irudiak erabiltzen dira; ikasle guztien izenak jarri eta gezien bitartez beren aukerak adierazten dira: gezi berdeak egotea gustuko duten kideekin elkartzeko eta gorriak egotea gustuko ez dutenekin. Irudia sortzeko saiakera egin bada ere, ez da modu argian adieraztea lortu eta hori dela eta, kasu adierazgarrienak soilik aipatu dira.

Horrez gain, grafikoa aztertzerako momentuan, unitatea berriro egitekotan beharbada erronka kooperatiboen saioak (7, 8 eta 9. saioak) hasieran planteatu beharko lirateke. Izan ere, erronketan oso ondo ikusten da taldean lan egiteak dituen abantailak eta horiek hasieratik eginda ikasleak gainerako saioetan modu desberdinean jokatuko lukete, jokaera kooperatiboen hazkuntza handiagoa bilakatuz.

Bestetik, ebaluazioari dagokionez, kontutan eduki behar da pertsona bakarraren ardura izan dela guztia: antolakuntza, datu jasoketa, irakasle lana... Hau horrela, seguruenik jokaera eta gertaera asko ez dira jaso eta, beraz, ez dira ebaluatu edo kontutan izan. Ebaluazioaren harira, egokia izango litzateke ere ikasleek prozesuan zehar autoebaluazio fitxa bete izana. Autoebaluazioak oso erabilgarriak dira norberak ikus dezan zer egiten duen ongi eta zer gaizki. Autoebaluazioa egitea lanaren gaineko hausnarketa egitea da; zein izan diren gure mugak, aurkitu ditugun zailtasunak...

Azkenik, ikerketako muga bezala ikusten ez dudan arren, dianostikoan neska eta mutilen arteko harremanetan sumatu den ahultasunari dagokionez, ez da bereziki bi sexuen arteko harremana hobetzeko ahaleginik egin. Helburua, orokorrean, gelakide guztien arteko giroa hobetzea izan da.

Oro har, eta bukatzeko, lanaren helburuak nagusiki lortu direla esan daiteke eta, beraz, honi jarraipena ematea interesgarria izango litzateke, ikastetxe mailan kooperazioak eta eskoako giroak ikasleen garapenean duen garrantzia presente edukiz. Horretarako, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan (IHP) gaiaren inguruko planen bat txertatzea interesgarria izango litzateke, kooperazioa eta elkarlana eskolaren filosofia gisa ezarriz. Gogoratu, kooperazioa, elkarbizitza egokia lortzeko, eskolako eremu guztietan presente eduki eta landu daitekeen tresna dela.

Eskola komunitatea osatzen dugun estamentu guztiok bat gara, talde bat, eta gure arteko harremana zaintzea ezinbesteko gauza da. Azken finean, eskola da gure bigarren etxea.



## 7. BIBLIOGRAFIA:

- Alastrué, P., eta González, C. (2017). Modelo de competición Juegos Deportivos Escolares. *Juga Verd Play*, 1-2.
- Aldabaldetrekú, O. (2019). *Familian jolastea: jolas kooperatiboak ezagutzen* [online] Intered.org. Available at: [https://intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/06/JuegosCooperativos\\_06EUSKEnfren.pdf](https://intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/06/JuegosCooperativos_06EUSKEnfren.pdf) [Accessed 11 Apr. 2019].
- Coelho, E. (1998). *Teaching and learning in multicultural schools. Multilingual Matters*. England: Clevedon.
- Cohen, E. G. (1999). *Organizzare i gruppi cooperativi. Ruoli, funzioni, attività*. Gardolo, TN: Erickson.
- Cohen, J. (2006). Social, Emotional, Ethical, eta Academic Education: Creating a Climate for Learning, Participation in Democracy, and Well-Being. *Harvard Educational Review*, 76(2), 201-237. doi: <http://dx.doi.org/10.17763/haer.76.2.j44854x1524644vn>
- Cohen, J., McCabe, E. M., Michelli, N. M., eta Pickeral, T. (2009). School climate: Research, policy, teacher education and practice. *Teachers College Record*, 111(1), 180-213.
- Eusko Jaurlaritza (2007). Escolarización del alumnado inmigrante. Metodología (aprendizaje cooperativo). [http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/dia6/es\\_2027/adjuntos/zubirik\\_zubi/materiales\\_educacion\\_primaria/CURRICULUMA/32\\_apren-coop.pdf](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/dia6/es_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/CURRICULUMA/32_apren-coop.pdf).- tik berreskuratuta, 2019ko maiatzak 27.
- Fernandez Rio, J. M., eta Méndez Giménez, A. (2016). El aprendizaje cooperativo: modelo pedagógico para educación física. Cooperative learning: Pedagogical model for physical education. *RETOS: NUEVAS TENDENCIAS EN EDUCACIÓN FÍSICA, DEPORTE Y RECREACIÓN*, 29, 201-206.
- Finnan, C., Schnepel, K., eta Anderson, L. (2003). Powerful learning environments: The critical link between school and classroom cultures. *Journal of Education for Students Placed at Risk*, 8, 391-418. doi: [https://doi.org/10.1207/S15327671ESPR0804\\_2](https://doi.org/10.1207/S15327671ESPR0804_2)
- Freiberg, H. J. (1999). *School climate: Measuring, improving and sustaining healthy learning environments*. Philadelphia: Falmer Press.
- García Bacete, F. J. (2006). La identificación de los alumnos rechazados. Comparación de métodos sociométricos de nominaciones bidimensionales. *Infancia y Aprendizaje*, 29(4), 437-451.

- Gallego, R. (2019). Zer-nolako erabilera du jolasak gizartea eraldatzeko?. [online] Hikhasi.eus. Available at: [http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190601/Zer-nolako\\_erabilera\\_du\\_jolasak\\_gizartea\\_eraldatzeko\\_\\_RUBEN\\_GALLEGO](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190601/Zer-nolako_erabilera_du_jolasak_gizartea_eraldatzeko__RUBEN_GALLEGO) [Accessed 11 Apr. 2019].
- Ghaith, G. (2003). The relationship between forms of instruction, achievement and perceptions of classroom climate. *Educational Research*, 45, 83-93.
- Gregory, A., eta Cornell, D. (2009). "Tolerating" adolescent needs: Moving beyond zero tolerance policies in high school. *Theory Into Practice*, 48, 106-113. doi: <https://doi.org/10.1080/00405840902776327>
- González Álvarez, J. (1990). *Sociometria per ordinador: el Test Sociomètric*. Generalitat, Conselleria de Cultura, Educació i Ciència.
- Guinea, S. (2017). La influencia del aprendizaje cooperativo entre el alumnado de Educación Primaria (Trabajo de fin de grado). Sevilla: Universidad de Sevilla. Hemendik eskuratua: <https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/62979/TFG%20SERGIO%20GUINEA%20RICO.pdf?sequence=1&isAllowed=y> a fecha de 25 de mayo de 2019
- Jia, Y., Way, N., Ling, G., Yoshikawa, H., Chen, X., Hughes, D., Ke, X., et al. (2009). The influence of student perceptions of school climate on socioemotional and academic adjustment: A comparison of Chinese and American adolescents. *Child Development*, 80(5), 1514-1530. doi: <https://doi.org/10.1111/j.1467-8624.2009.01348.x>
- Johnson, R. T., & Johnson, D. W. (1994). An overview of Cooperative Learning. En J.S. Thousand, R.A. Villa and A.I. Nevin (eds), *Creativity and collaborative Learning* (pp. 31-44). Baltimore, MD: Paul H. Brookes Publishing Co.
- Kerr, D., Ireland, E., Lopes, J., Craig, R., eta Leaver E. (2004). *Making citizenship real. Citizenship education longitudinal study second annual report. First longitudinal survey*. London: DfES.
- Lavega, P., Planas, A., eta Ruiz, P. (2014). Juegos cooperativos e inclusión en educación física / Cooperative games and inclusion in physical education. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte*, 14, 37-51.
- López-González, L., eta Oriol, X. (2016). La relación entre competencia emocional, clima de aula y rendimiento académico en estudiantes de secundaria. *Cultura y Educación*, 28, 130-156. doi: <https://doi.org/10.1080/11356405.2015.1120448>
- Mercedes Brea, L. (2014). *Factores determinantes del sentido de pertenencia de los estudiantes de Arquitectura de la Pontificia Universidad Católica Madre y Maestra, Campus Santo Tomás de Aquino*. Murcia

- National School Climate Center. (2014). *School climate*. Hemendik eskuratuta: [www.schoolclimate.org](http://www.schoolclimate.org)
- Núñez, J. C., Solano, P., González-Pianda, J. eta Rosário, P. (2006). El aprendizaje autorregulado como medio y meta de la educación. *Papeles del Psicólogo*, 27(3),139-146.
- OMEÑACA (1998): *Juegos cooperativos y Educación Física*. Barcelona: Paidotribo.
- Orlick, T. (1990). *Libres para cooperar, libres para crear. Nuevos juegos y deportes cooperativos*. Barcelona: Paidotribo.
- Putnam, J. (1997). *Cooperative learning in diverse classrooms*. Upper Saddle River, N.J. Prentice-Hall.
- Sandoval-Caraveo, M. C., Surdez-Pérez, E. G., eta Pérez-Sandoval, A. G. (2017). Clima escolar del campus de ingeniería y arquitectura de una universidad pública mexicana desde la perspectiva de sus estudiantes. *Educare*, 21(2), 1-21. doi: <http://dx.doi.org/10.15359/ree.21-2.8>
- SLAVINSlavin, R. E. (1990). *Cooperative learning. Theory, research, and practice*. Needham Heights, MA: Allyn and Bacon.
- Thapa, A., Cohen, J., Guffey, S., eta Higgins-D'Alessandro, A. (2013). A review of school climate research. *Review of Educational Research*, 83(3), 357-385. doi: <http://dx.doi.org/10.3102/0034654313483907>
- UNESCO (1995). *Conferencia mundial sobre necesidades educativas especiales: acceso y calidad*. Salamanca, España, 7- 10 de junio 1994. Madrid: UNESCO y Ministerio de Educación y Ciencia.
- UNILEÓN (2013). *Desarrollo de equipos de trabajo y dirección participativa*. Hemendik eskuratua: <http://servicios.unileon.es/formacion-pdi/files/2013/03/MATERIAL-DEL-ALUMNO.pdf>
- U. S. Department of Health eta Human Services. (2000). *Healthy People 2010: Understanding and improving*. Washington: U.S. Government Printing Office.
- Velázquez, C. (2007). El aprendizaje cooperativo en Educación Física: qué, para qué, por qué y cómo. *La Peonza*, 2, 1-9. Hemendik eskuratua: [https://www.academia.edu/3029282/El\\_aprendizaje\\_cooperativo\\_en\\_educaci%C3%B3n\\_f%C3%ADsica\\_qu%C3%A9\\_para\\_qu%C3%A9\\_por\\_qu%C3%A9\\_y\\_c%C3%B3mo](https://www.academia.edu/3029282/El_aprendizaje_cooperativo_en_educaci%C3%B3n_f%C3%ADsica_qu%C3%A9_para_qu%C3%A9_por_qu%C3%A9_y_c%C3%B3mo)
- Velázquez, C. (2013). *Análisis de la implementación del aprendizaje cooperativo durante la escolarización obligatoria en el área de Educación Física*. Valladolid: Uva.


- Velázquez, C., Fraile, A., eta López., V. M., (2014). Aprendizaje cooperativo en Educación Física. *Movimiento*, 20, 2-4.
- Wang, M. T., Selman, R. L., Dishion, T. J., eta Stormshak, E. A. (2010). A tobit regression analysis of the covariation between middle school students' perceived school climate and problem behavior. *Journal of Research on Adolescence*, 20, 274-286. doi: <https://doi.org/10.1111/j.1532-7795.2010.00648.x>
- Wentzel, K. R., eta Watkins, D. E. (2002). Peer relationships and collaborative learning as contexts for academic enablers. *School Psychology Review*, 31(3), 366-377.

## **ERANSKINAK**

### **1. Eranskina: irakaslearen koadernoaren adibidea**

Igerilekuko aldageletatik ateratzean, S.G. ikaslea buzti-buzti eginda zegoen. Mutilen aldagelan sartzen den irakasleak begiradarekin beste momentu batean azalduko didala esan dit. Autobusera iristean dena kontatu dit: igerilekutik atera eta aldageletan sartu direnean dutxatu eta arropaz aldatzeko, S.G-ren motxila ez zuten aurkitzen. Bion artean bilatzen aritu dira, eta irakasleak komuneko zuloan aurkitu du, barruko guztia buztita aurkituz. Behehala, monitoreengana hurbildu eta ea ikasleren bat klase bitartean aldageletara sartu den galdetu dio. Honek bietz erantzun dio, gelako beste mutiko bat, sudurretik odoletan zegoela eta barrura sartu dela.

## 2. Eranskina: soziogramarako fitxa

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><i>Gratu Amaierako Lana</i> <i>Soziograma egiteko fitxa</i></p>
<p><b>IZENA:</b></p>	
<p><b>→ Zein gelakiderekin gustatzen zaizu denbora librean jolastea? (Hiru izen aipatu)</b></p>	
<p>1.-</p>	
<p>2.-</p>	
<p>3.-</p>	
<p><b>→ Zein gelakiderekin <u>EZ</u> zaizu gustatzen denbora librean jolastea? (Hiru izen aipatu)</b></p>	
<p>1.-</p>	
<p>2.-</p>	
<p>3.-</p>	

### 3. Eranskina: errubrika

<i>Ikaslearen Izena:</i>		
<b>JOKAERA KOOPERATIBOAK</b>		
<b>1. Jokaera motor kooperatibo (AJUSTADO)</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
• Kooperazioa indartzen du		
• Sakrifikatzen da		
• Kooperazio eraginkorrak proposatzen ditu		
• Eraginkortasunez kooperatzen du		
<b>2. Jokaera motor kooperatibo ez (AJUSTADO)</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
• Eraginkortasun ezarekin kooperatzen du		
• Lehia bilatzen du		
• Exigentzia maila handiko kooperazioa proposatzen du		
• Kalte egiten du		
<b>3. Diziplinarik gabeko jarrera motorrak (DIZ.GAB)</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
• Arauak ez ditu betetzen		
• Molestatzen du		
<b>4. Itunari lotutako ahozko jokaerak (ITUN)</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
• Ituna proposatzen du		
• Ituna onartzen du		
• Itunari uko egiten dio		

#### 4. Eranskina: saioen laburpenak

##### 4.1. Adibidea: Laugarren saioaren Laburpena

**Koloretako zapiaren bila:** talde txikietan egin genuenean primeran atera zela ikusita, nahiz eta Unitatean ez adierazita egon, ikasle guztien artean jolasa errepikatzea erabaki nuen. Banekien konplexua izango zela, 25 ikasle hitsu ilara batetan jarrita bideratzea ez delako lan erraza, baina ideia ona iruditu zitzaidan. Hau ere ez zen guztiz gaizki atera, baina aurreko jarduerarekin alderatuta, jokaera desegokiak agertu ziren. Ikasle batzuk aurrekoei bultzaka aritu ziren, beste batzuk begiak irekitzen zituzten... Momentu batean Nahia (ilarako lehenengoa) gelditu eta mesedez, erdikoek isilik egoteko eskatu zuen, ez zuela Udanek (ilarako azkena, gidaria) botatzen zituen argibideak entzuten.

**Sugea:** jarduera azaldu ondoren, ikasleei bi taldeak beren kabuz osatzeko aukera eman nien. Neskak alde batetik eta mutilak bestetik jartzera zijoazela konturatu nintzenean, mixtoak izan behar zirela azaldu nien. Minutu bat eman nien taldeak osatzeko eta ez ziren gai izan, beraz, nik egin behar izan nituen. Ikasleak ilarak jarri, arauak gogoratu eta hasteko abisua eman nuenean begian mina hartu zuen ikasle batekin komunera hurbildu nintzen. Bueltatu nintzenean (3 minutuetara), Hegoa negarrez zegoen. Jolasa gelditu eta denak borobilean eseri ginen gertatutakoa azaltzeko.

Hegoak azaldu zuen bere taldera joan zenean Danielak (talde berean zegoela) esan ziola bera ez zela talde horretakoa eta bestera joan behar zela. Hegoak bere taldea "BAT" zela argitu zion, baino Danielak beste aldera bultzatu eta bere taldea bestea zela ohiukatu zion. Beste aldetik, Ayak ilaran bere aurrean zegoen Asierrek ez ziola sorbaldeetatik heltzen uzten jakinarazi zidan.

**Hitzik gabe ordenatu:** ikasleak hiru taldetan banatuta zeuden. Horietako bi taldek berehala ordenatu ziren esandako irizpidearen arabera (jaiotze dataren arabera), baino hirugarrenak arazoak izan zituen elkar ulertzeko. Gainera, behin ordenatuta, banan-banan ondo jarrita zeudela ziurtatzeko beren urtebetetze eguna esaten zeundela Irati gaizki jarrita zegoela konturatu ziren. Berehala Ziortzak eta Asierrek aurpegi txarra ipini eta inoiz ez zela ezertaz enteratzen esan zioten.

Horo har, talde guztietan "lider" moduko bat egon zen taldea gidatzen zuena eta kideekin komunikatzen saiatzen zena hauek ondo ordenatzeko.



5. Eranskina: helburu eta tresnen arteko lotura

HELBURUAK		TRESNAK			
		Irakaslearen Koadernoak	Soziograma	Errubrika	Saioen Laburpenak
D I A G N O S T I K O A	Eskola orduetan (jolas-orduetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, ikasgelan..) taldeak duen kohesio-maila ezagutzea.	X			
	Ikasleen artean ematen diren gertaerak bere ingurune naturalean sortzen diren eran deskribatzea; deskribapen adierazgarriak lortzea.	X			
	Ikasleen arteko harremanak ezagutzea: ikastaldeko azpitaldeak, liderrak eta isolatuta edo baztertuak dauden umeak identifikatzea.		X		
E S K U H A R T Z E A	Jokaera kooperatiboak nagusitzea			X	
	Arauek betetzearen garrantziaz jabetzea				X
	Jarrera lehiakor negatiboak ekiditea.				X
	Jokoaren helburua lortzeko kide guztiak duten garrantziaz ohartzea.				X
	Kideenganako laguntza sustatzea, enpatiarene bitartez.				X
	Ikasleen arteko komunikazioa hobetzea.				X
	Ikasleen arteko harreman afektiboak estutzea.				X
	Konfidantzazko giroa sortzea.				X
	Talde sentimendua indartzea.				X
	Ikaskideen arteko elkarbizitza hobetzea, elkarrekintza diskriminatzailea eta besteenganako aurreiritziak ekidituz.				X
Errespetua eta arduraren zentzua sustatzea.				X	
Erronkak gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea; ikasleen jarrera aktiboagoa sustatzea.				X	

## 6. Eranskina: unitate didaktikoko saioak

<b>1.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Ikasleek jolas kooperatiboen inguruan zer dakiten aztertzea eta euren kooperazio hasierako maila ikustea.		
<b>Non</b>	Kiroldegian		
<b>Materiala</b>	Petoak		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Aurkezpena		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Borobilean eserita	<b>Denbora</b>	10 min
Ikasleekin jolas kooperatiboen inguruan zer dakiten komentatu eta honen garrantzia indartzen saiatu.			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>2. Jarduera</b>	Marro-Marro		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Fubol zelaiko marrak	<b>Denbora</b>	25min
Bi talde osatu eta zelaiaren mugak zehaztuko dira. Muturretako marretan talde bakoitzaren “energia gunea” egongo da. Helburua beste takdeko ahalik eta partaide gehien harrapatzea da. Horretarako, zure harrapakiña baino “energia” gehiago izan behar duzu, hau da, “energia gunetik” zu baino lehenago atera den pertsona hori bakarrik harrapatu ahal izango duzu. Norbait harrapatzekotan zelaiko kartzelara eramango da. Harrapatutako horiek kate bat osatuko dute eta beren taldeko norbait ukitzekotan besterik ez dira libratuko. Aldi berean, taldeak puntuak lortu behar ditu aurkako taldearen “energia gunea” zeharkatuz.			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	Korapiloa		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Edozein espazio ireki	<b>Denbora</b>	15min
10 pertsonako taldeetan banatuta, begiak itxita eskutik helduko dituzte korapilo bat eginez. Begiak ireki eta poliki-poliki korapiloa askatzen saiatuko dira.			
Lortzean klasekide guztien artean errepikatuko dute jolasa.			

<b>2.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Jokoaren helburua lortzeko kideen garrantziaz ohartzea		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Baloiak, petoak		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Biko Banda		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle bat harrapatzailea izango. Kide bat harrapatzen duenean, horrek ere harrapatzaile rola hartuko du eta biak eskutik helduta jarraituko dute jolasten. Laukotea sortzen denean, erditik moztu eta bi bikote osatuko dituzte. Jokoa denak harrapatzen direnean bukatuko da.</p>			
<b>2.Jarduera</b>	Katea		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	10min
<p>“Biko banda”-ren aldaera bat izan daiteke. Harrapatzaileak kideak harrapatzen dituenean ez dira bikoteetan bananduko. Modu horretan klasekide harrapatuen artean kate erraldoi bat osatuko dute gainerakoen bila abiatzeko.</p>			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	Baloi Eseria		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	25min
<p>Irakasleak baloia jaurtiko du. Pilota duenak hiru pausu eman ditzazke eta baloiarekin beste norbait gerritik behera jotzen saiatu behar da. Beste horrek airea hartzen badu baloia lurrera erori gabe, ez da emanda egongo eta jolasarekin jarraituko du. Gerritik behera jo eta pilota lurra ukitzen badu, emanda egongo da eta lurrean eseri beharko da. Libratzeko modua baloia hartzea izango da.</p> <p><b>ALDAERAK:</b></p> <p><b>1.ALDAERA:</b> eserita daudenetako bat baloia hartzea lortzen badu, gainerakoei pasatzen libratu ditzazke.</p> <p><b>2.ALDAERA:</b> 2,3 edota 4 pilota sartu</p> <p><b>3.ALDAERA:</b> Talde txikietako aliantzak</p>			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	“Rodilloa”		

<b>Espazioaren antolaketa</b>	Edozein espazio ireki	<b>Denbora</b>	10min
Denak etzanda jarriko dira bata bestearen alboan (batak buruan goian, hurrengoak burua beheko aldean). Ilarako lehenengoa altxatu eta gainerakoek hasieratik amaieraraino eramango dute eskuekin altxatuz.			

<b>3.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Kideenganako laguntza sustatzea, enpatiaren bitartez		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Uztailak, aulkiak		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Aulkien Jolasa		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Uztailez osatutako borobila	<b>Denbora</b>	15min
Betiko aulki jolasaren aldaera bat da. Lehenengo aulkiak borobilean jartzen dira (partaideko bat) eta musikarekin batera haurrak aulkien inguruan bueltaka dantzan hasten dira. Musika geratzean, partaide bakoitza aulki batean eseri behar da. Ondoren, aulkiak banan-banan kentzen hasi behar da. Aulki baino partaide gehiago egongo direnez, batzuek beste batzuen gainean eseri beharko dira, azkenean denak aulki baten gainean eserita geratu arte.			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>2. Jarduera</b>	Ardiak eta Otsoa		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	20min
Espazioan zehar laupabost uztai banatuko ditugu. Boluntario bat otsoa izango da eta beste guztiak ardiak. Otsoak etxetik edo uztaitik kanpora dauden ardiak jaten saiatuko da. Ardi bat larrialdian ikusten dutenean etxe barruan dagoen norbaitek etxea utzi eta bere tokian sartzen utziko dio. Otsoak norbait harrapatu ezker, rolak aldatuko dira.			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	Hausnarketa		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Borobilean eserita	<b>Denbora</b>	15min
Borobilean eserita, irakasleak gidatua, jolas kooperatiboen inguruko hausnarketa egingo dute ikasleek			

<b>4.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Ikasleen arteko komunikazioa hobetzea		
<b>Non</b>	Kiroldegian		
<b>Materiala</b>	Petoak, banku suediarrek		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Koloretako Zapiaren Bila		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Kiroldegi osoa aldagelak izan ezik	<b>Denbora</b>	20min
<p>6 ikasle inguruko taldeak osatuko dira. Talde bakoitzak egokitutako koloreko zapia aurkitu behar du. Horretarako, denak iralan jarrita begiak itxiko dituzte azkenengoa izan ezik. Honek bere taldea gidatu beharko du</p> <p><b>Aldaera:</b> jolasa errepikatuko da, baina taldeetan egin beharrean ikasle guztiek kate bakarra osatuko dute.</p>			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>2. Jarduera</b>	Sugea		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	15min
<p>Ikasleak bi taldeetan banatuko dira eta bata bestearen atzean jarriko dira bi kate osatuz. Bakoitzak zapi bat izango du ipurdian eta helburua talde bakoitzeko lehenengoak beste talde azkenengoiari zapia kentzea izango da. Kentzekotan, harrapatua zure taldekoa bilakatuko da katearen amaieran jarri. Harrapatzailea beti berdina ez izateko katearen amaierara ere pasatuko da. Jolasa talde batean pertsona bakarra gelditzen denean amaituko da.</p> <p><b>Aldaerak:</b></p> <p><b>1.ALDAERA:</b> Kateko lehenengo pertsona hitsua izango da eta besteek gidatu beharko dute.</p> <p><b>2.ALDAERA:</b> 4 talde sortzea.</p>			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	Hitzik gabe Ordenatu		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Edozein espazio ireki	<b>Denbora</b>	15min
<p>Ikasle guztiak, hitzik esan gabe, iralan jarri beharko dira (jaiotze datren arabera, handitik txikira, zapatilla taillaren arabera...) ordenatuta.</p>			

<b>5.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Konfiantzazko giroa sortzea		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Baloia, zapia, petoak		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Kuligol		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai osoa	<b>Denbora</b>	20min
<p>Futbolaren antzerako jolasa da. Kasu honetan zutik eta korrika jolastu beharrean partaideak lurrean eserita jolastu behar dute. Ezin dute baloia eskuarekin hartu eta euren artean baloia pasatuz porteria sartzea lortu behar dute.</p>			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>2. Jarduera</b>	Zapitxoak		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Zelai erdia eta porteria bakoitzeko area-marra	<b>Denbora</b>	20min
<p>Ikasleak bi taldeetan banatuko dira eta talde bakoitzetik distantzia berdinerako puntuak irakaslea kokatuko da zapi bat eskuan duela. Talde bakoitzeko partaideei zenbaki bat emango zaie. Irakasleak aleatorioki zenbaki bat ohiukatuko du. Zenbaki hori duten ikasleek zapitxoaren bila atera beharko dira. Helburua zapia hartzea eta zure eremura harrapatua izan gabe iristea izango da.</p> <p><b>ALDAERA:</b> zenbaki bat baino gehiago esatea (zenbaki kopuru bakoitzaren arabera; zalditxoan, erreginaren aulkian edo hanken azpitik eskutik heldutik joatea).</p>			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	Konfiantza		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Edozein espazio ireki	<b>Denbora</b>	10min
<p>6 pertsonako taldeetan banatuko dira ikasleak. Borobil bat osatuko dute eta banan-banan kideetako bat erdian kokatu, begiak itxi eta bere gorputza atzerantz botako du. Kanpokoek beren artean pasatuko dute.</p>			

<b>6.saioa</b>			
<b>Helburuak</b>	Talde sentimendua indartzea		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Petoak, baloia		
<b>Jarduerak</b>			
<b>Aktibazioa</b>			
<b>1. Jarduera</b>	Ezkataketa		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Kiroldegi osoa aldagelak izan ezik	<b>Denbora</b>	15min
<p>Ezkataketa normalean ez bezala, bat ezkututzen da eta beste guztiak ixil ixilik bere bila doaz, eta norbaitek aurkitzen duenean, non dagoen esan beharrean berarekin eskutzatzen da denak eskatu arte.</p>			
<b>Jarduera Nagusia</b>			
<b>2. Jarduera</b>	10 paseak		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Futbol zelai erdia	<b>Denbora</b>	25min
<p>Ikasleak bi taldetan banatuko dira. Hauen helburua euren artean hamar pase segidan eta baloia lurrera erori gabe egitea izango da. Baloia lurrera erortzekotan berriro hasi beharko lukete. Kontrako taldeak pase horiek ekiditzen saiatu beharko dira.</p> <p><b>ALDAERAK:</b></p> <p><b>1.ALDAERA:</b> baloia lurrera erortzekotan beste taldearentzat izango da</p> <p><b>2.ALDAERA:</b> bi baloirekin jolastukoa da</p>			
<b>Barealdia</b>			
<b>3. Jarduera</b>	"Txanponaren bidaia"		
<b>Espazioaren antolaketa</b>	Edozein espazio ireki	<b>Denbora</b>	10min
<p>Haurrak lurrean etzanda jarriko dira gora begira errenkada bat osatuz. Lehenengoari txanpona jarriko zaio sabelean eta errenkan azkena dagoenari iritsi beharko zaio. Txanpona ezin da lurrera erori eta eskuekin ere ezin da ukitu, beraz, txanpona bata besteari pasatzeko modurik onena, txanpona ez duenak txanpona duenaren gainean jartzea da eta gero buelta ematea. Txanpona lurrera erori edo ukitua izanez gero, berriz ere hasieratik hasi beharko da.</p>			

<b>7.saioa (Erronka Kooperatiboak)</b>			
<b>Helburuak</b>	Erronka gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea eta bakoitzak bere gaitasun motoreak eta kognitiboak erabiltzea. Horrez gain, kideei erronka gainditzeko laguntza eskaintzea.		
<b>Espazioaren Antolaketa</b>	<i>(Ikus Eranskinak 3.1: zazpigarren saioko planoak)</i>		
<b>TXOKOAK</b>			
<b>1. Txokoa</b>	Erreka pasa...Saltoka	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	2 uztail, 2 soka eta baloi 1		
Taldekideek 10 metroko ibilbidea egin beharko dute, bidai bakarrean, denak elkarrekin. 2 uztail izango dituzte. Lurra bakarrik uztailen barruan zapaldu ahalko dute. Baloi bat garraiatu beharko dute denok ukituz, uneoro.			
<b>2. Txokoa</b>	Harresia	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Koltxoneta handia eta 2 koltxoneta meheak		
Taldekide guztiak koltxoneta handia pasa beharko dute, zutik jarrita egonik. Koltxoneta zutik irauteko eta ez erortzeko estrategiak asmatu beharko dituzte, ezingo baitute eskuekin ukitu. Koltxoneta pasatzen duenak ezingo du atzera egin laguntzeko.			
<b>3. Txokoa</b>	Zubi azpitik	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Soka 1		
Taldekide guztiak soka baten azpitik pasa beharko dira banan banan, soka ukitu gabe. 4 aldiz pasa beharko da bakoitza, 4 era ezberdinetan: Arrastaka → kuadrupedian → Belauniko (eskuak lurrean jarri gabe) → Zutik eta tente.			
Soka igotzeko bi lagun txandakatuko dira, baina ezin izango dute eskuekin heldu			
<b>4. Txokoa</b>	Soka Pilota	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Pertsona adina soka eta pilota 1		
Ikasleak borobilean jarriko dira. Taldekide adina soka izango dituzte. Soka bakoitzaren mutur bat lagun batek hartuko du eta bestea bere taldekide batek. Erdian izar bat egiten saiatu beharko dira. Pilota soken gainean jarri eta 5 aldiz altxatu beharko dute. Altuena den taldekidearen bururaino iritsi behar da pilota.			
<b>5. Txokoa</b>	Arka de Noe	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	3 koltxoneta eta 4 kono		
Klasekide guztiak 2 koltxoneten gainean igo eta 3. Koltxoneta bat erabili beharko dute			



aurrera bidaiatzeko. Lurra ukitu gabe, koltxoneta batetik bestera pasa beharko dira.

## 8.saioa (Erronka Kooperatiboak)

<b>Helburuak</b>	Erronka gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea eta bakoitzak bere gaitasun motoreak eta kognitiboak erabiltzea. Horrez gain, kideei erronka gainditzeko laguntza eskaintzea.		
<b>Espazioaren Antolaketa</b>	(Ikus Eranskinak 3.2: zortzigarren saioko planoak)		
<b>TXOKOAK</b>			
<b>1. Txokoa</b>	Erreka pasa Bikoteka	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Uztaila 1, 2 soka eta 2 zanko pare		
<p>2 soken arteko espazioa zeharkatu beharko dute, zanko batzuen gainean eta gerri altueran eramango duten uztail baten barruan (txalupa). Txalupa 2 lagunentzako baino ez da izango, baina bikoteak osatzerakoan zenbait uztartezintasun topatuko dituzte:</p> <p>Hurrengo bikoteak ezin dira txalupan elkarrekin joan:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Otsoa oiloarekin</li><li>-Oiloa zizarearekin</li><li>-Abeltzaina zizarearekin</li></ul>			
<b>2. Txokoa</b>	Txapela Buruan ibili Koadrillan!	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Pertsona adina txapela eta 2 soka		
<p>10 metroko ibilbidea egin beharko dute taldekide guztiek, txapela bana eramanda buru gainean (eskuekin ukitu gabe). Aldi berean egingo dute guztiek, baina bakoitza bere erritmoan.</p> <p>Norbaiti txapela erortzekotan, geldi eta zutik geratu beharko da, ezingo du hartu. Beste taldekide batek hartu eta jarri beharko dio buru gainean.</p>			
<b>3. Txokoa</b>	Baloi Hegalaria	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Pilota 1 eta 2 soka		
<p>Baloiak 10 metroko ibilbidea osatu beharko du, airetik, lurrera erori gabe. Taldeko pertsona guztiek ukitu beharko dute, txandaka. Taldekideak lurrean eserita egon beharko dira baloia heldu eta hurrengoari pasa bitartean eta ezingo dute baloia besoekin edota eskuekin ukitu.</p>			
<b>4. Txokoa</b>	Puxika	<b>Denbora</b>	10 min

<b>Materiala</b>	Puxikak, 2 hesi, 4 kono zig zag egiteko eta 2 soka		
Puxika bat puztu eta osatutako ibilbidea gainditu beharko dute. Ibilbidea hiru aldiz egin beharko dute, bakoitzean puxika gorputz atal desberdinarekin (burua, ipurdia eta sabela) eramanez. Puxika beti egon behar da taldekide guztiakin kontaktuan lurrera erori gabe.			
<b>5. Txokoa</b>	Uztail Lasterketa	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Uztaila bat		
Ikasle guztiak borobilean jarriko dira eskuak emanda. Bi ikasleren eskuen tartean uztaila sartuko da eta uztailak borobil osoarik buelta ematea lortu behar dute.			


### 9.saioa (Erronka Kooperatiboak)

<b>Helburuak</b>	Erronka gainditzeko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea eta bakoitzak bere gaitasun motoreak eta kognitiboak erabiltzea. Horrez gain, kideei erronka gainditzeko laguntza eskaintzea.		
<b>Espazioaren Antolaketa</b>	<i>(Ikus Eranskinak 3.3: bederatzigarren saioko plano)</i>		
<b>TXOKOAK</b>			
<b>1. Txokoa</b>	Koltxonetari Buelta	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Koltxoneta bat		
Ikasleak koltxoneta gainean jarriko dira eta lurra ukitu gabe honi buelta ematen saiatuko dira.			
<b>2. Txokoa</b>	Hesia Igaro	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Zango pare bat eta soka bat		
Ikasle guztiak hesiaren alde batetik bestera pasatzea lortu beharko dute.			
<b>3. Txokoa</b>	Dorrea	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Materialaren armairuan dagoen guztia		
Armairuko material guztia aterako da. Ikasleek material guztiarekin dorre bat osatzen saiatu behar dira. Ikasle bakoitzak material bat jarri beharko du eta behin dorrea eginda dagoenean desegin egin beharko dute bakoitzak berriz ere elementu bat kenduz. Dorrea erortzen baldin bada, hasieratik hasi beharko dira.			


<b>4.Txokoa</b>	Txapela ez erortzea	<b>Denbora</b>	10 min
<b>Materiala</b>	Konoak		
<p>Ikasleak borobilean kokatuko dira. Bakoitzak kono bat izango du eskuetan eta irakasleak abisua ematean konoa lurra erortzen utzi beharko du. Bakoitzak bere ezkerrean dagoenaren konoa hartzen saiatu beharko da.</p>			
<b>Hausnarketa</b>	Borobilean eserita, irakasleak gidatua, ikasleak erronka kooperatiboen inguruko hausnarketa egingo dute.		

7. Eranskina: Ikasle bakoitzaren garapena Grafikoen bidez adierazita


1 IKASLEAREN GARAPENA



2 IKASLEAREN GARAPENA




### 3 IKASLEAREN GARAPENA




—●— Jok. Koop.    —●— Jok. Ez Koop.

### 4 IKASLEAREN GARAPENA




—●— Jok. Koop.    —●— Jok. Ez Koop.


### 5 IKASLEAREN GARAPENA




### 6 IKASLEAREN GARAPENA




### 7 IKASLEAREN GARAPENA




### 8 IKASLEAREN GARAPENA



### 9 IKASLEAREN GARAPENA




### 10 IKASLEAREN GARAPENA







### 11 IKASLEAREN GARAPENA




### 12 IKASLEAREN GARAPENA




### 13 IKASLEAREN GARAPENA




### 14 IKASLEAREN GARAPENA




### 15 IKASLEAREN GARAPENA




### 16 IKASLEAREN GARAPENA




### 17 IKASLEAREN GARAPENA




### 18 IKASLEAREN GARAPENA




19 IKASLEAREN GARAPENA




20 IKASLEAREN GARAPENA



### 21 IKASLEAREN GARAPENA




### 22 IKASLEAREN GARAPENA







### 23 IKASLEAREN GARAPENA



### 24 IKASLEAREN GARAPENA



## 25 IKASLEAREN GARAPENA



—•— Jok. Koop.      —•— Jok. Ez Koop.